



Palestinako injustizia grafikotan



Felipe Uriarte

«Mendian argi ikusten da zer galduta dugun naturaren indarraren pertzepzioa»

Arantxa Urretabizkaia

«Idaztea lan klandestinoan izan da niretzat oraintsu arte»

Oriol Amorós, ERC

«Zerrenda desberdinekin, antagonikoki pentsatzen dutenek independentziaren alde bozkatzea nahi dugu»

Net Hurbil

Mediku kolonialek ere hedatu zuten Hiesa Afrikan

Adierazpenak ETB2n

Agindurik ez badute ere, gaztelaniaz aritzeko eskatzen diete kazetariak euskal hitzunei

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Azaleko argazkia:
VISIT PALESTINE
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitaratu ditzakezu, gure
egileta aitortu eta baldintza
beretan eginaz gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-
Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura:
Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa:
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara:
Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander
Arbelaitz. www.argia.eus: Gorka Bereziartua, Jon Torner.
Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo.
Idazkaritza tekniko: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia
Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia,
Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari
Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena:
Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa
Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña.
Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa:
GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel:
948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala:
komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus.
Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L.
Informatika: iamaeta interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro.
Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio
Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko abenduaren 14a, 2.441. zenbakia

ASTEKO GAIA

PALESTINA IKUSARAZTEN Injustiziaren aurkako diseinu
grafikoa. AXIER LOPEZ / 4

PERTSONAIA

FELIPE URIARTE: «Agian naturaren falta sumatzen dugulako
itzultzen gara mendira». REYES ILINTXETA / 10

IRITZIAREN LEIHOA

FEMINISMOA ETA GIZONEN EGITEKOA JUNE FERNÁNDEZ / 18
GAL ETA KONTZIENTZIA OBJEKZIOA

ROSA MARÍA MARTÍN SABARÍS / 19

ASTEA ETA JAIA BERDINTZE BIDEAN INMA ERREA / 20

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 17

TXANDAN Hausturatik. EDU ZELAIETA / 20

ERDIKO KAIERA

ARANTXA URRETABIZKAIA: «Lanean ari naizenean ez dut
disfrutatzen, baina hau idazten gustura sentitu naiz».

MIEL A. ELUSTONDO / 22

ZINEMA Film bat baloratzeko gakoak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 27

GOSARIAK Ines Osinaga: «Ikurritzak berritu behar dira, eta
barrikadak». IKER BARANDIARAN / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Mimetismoa, elkar ulertzeko. MYRIAM GARZIA / 35

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

ORIOI AMORÓS: «Hauteskunde ondoen independentzia
adierazpena da egin beharreko lehen gauza».

ARITZ GALARRAGA / 40

ANTISORGAILU HORMONALAK Askatzaileak al dira
emakumearentzat? ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43

ADIERAZPENAK EITB-N «Eta orain gaztelaniaz, mesedez».

MARIJO DEOGRACIAS / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47


NET HURBIL Hiesa Afrikan medikuen injekzioek ere zabaldu
zuten. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Injustiziaren aurkako diseinu grafikoa

Khader Adnanen askatasuna 66 eguneko baraualdi batek ekarri zuen, Palestinako preso politiko batek inoiz egin duen gose grebarik luzeenak. 2012ko otsaileko egun haietan epe luzeko gose greben ondorio fisikoei buruzko infografia bat bolo-bolo mugitu zen sare sozialetan. Istorio grafikoak sortzen dituen Visualizing Palestine (Palestina Ikusarazten) proiektuaren lehen agerpena izan zen hura. Harez gero, estatistikak eta diseinu grafikoa lotuz, dozenaka lan sareratu dituzte, Israelen okupazioak palestinarren egunerokotasunean sortzen dituen bortizkeria eta diskriminazio egoerak azaltzeko asmoz.

| AXIER LOPEZ |



ESTATISTIKAK erakusteko ohiko infografien eta kaleko kartelen arteko hibrido ikusgarriak sortzen ditu Visualizing Palestine (VP) kolektiboak. Mundu mailako onarpena duten zenbait erakunderen datuak erabiltzen ditu horretarako: Palestinako, Israelgo zein nazio-arteko giza eskubideen aldeko taldeak, instituzio akademikoak eta bestelako iturri ofizialak. *Facebook*, *Twitter*, *Tumblr* eta *visualizingpalestine.org* webgunearen bitartez zabaltzen dituzte lanak.

Visualizing Impact (VI) kolektiboaren lehen proiektua da VP. Beirut, Amman, Montreal eta Ramallah artean banatuta dauden hamar lagunek osatzen dute lantaldea. Horien artean, ikerleak, diseinatzaile grafikoak, garatzaileak eta informazioaren zabalkundearen aditu direnak daude.

VIko ikerketa eta ekoizpen arloetan lan egiten du Ahmad Barclay arkitektoak. VPren ideia aurki Ekialde Hurbileko beste zenbait herritara ere zabaltzeko asmoa dutela azaldu digu.

Zerk bultzatu zintuzten Visualizing Palestine proiektua abiatzera?

Palestinari buruzko albiste eta erreportaje asko dago. Gehiegi akaso. *Mendebaldeko* herrietan bereziki, gehiengoak jasotzen duen informazioa zehaztugabea da nagusiki. Palestinarrei egindako lapurreta, marjinazio eta okupazioari buruzko kontakizunak izan beharrean, *de-facto* Israelen menpe dagoen lurralde hartatik datozkigun istorioek bi indar parekatuen arteko gatazka batez hitz egiten dute maizegi. Are gehiago, palestinarren biolentzia testuinguru edo motibaziorik gabe aurkezteko joera dago, eta aldiz, Israeliek erabiltzen duen bortizkeriaren justifikazio ofizialak normalean ez dira ezbaian jartzen.

Informazio gairak horrekin lotuta, oso zabaldua dago “gatazka ulertzea zaila da” dioen ideia. Gezurra den aurreiritzi horri egin nahi diogu aurre. Jendearengan kritikotasuna landu nahi dugu arrazoi eta argudio anitzak emanez.

Zergatik aukeratu dituzue grafikoak eta estatistikak?

Narratiba ofiziala zuzentzeko asmoz, beste multimedia proiektu batzuek bide tradizionalak edo kazetaritza herritarra erabili dituzte. VPren lantaldean ondorioztatu genuen gatazkaren jatorria azaltzeko infografiak —eta animazio grafikoa eta web interaktiboen moduko eduki bisualak— tresna egokiak direla. Nazio Batuen Erakundeak, gobernu kanpoko erakundeek eta beste iturriek ezinbesteko datuak argitaratzen dituzte, baina oso era akademikoan. Adibidez, zeinek irakurriko du 200 orriko txostena Israeliek atxilo dituen adingabeen inguruan? Informazio horrek gatazkaren egiazko dinamika azaltzen ditu, baina zabaltzen duten eran nekez helduko da gizartearen gehien-



Ahmad Barclay, Visualizing Impact kolektiboko kidea eta arkitektoa.

goarengana. Infografiak, egoki erabiliz gero, datu gordinak era ulerterrazean aurkezteko gaitasuna du, eta gisa horretan gainera, kazetaritza artikuluen edo iritzi artikuluen edukiak gezurtatzea baino askoz zailagoa da.

Nolakoa da infografiak sortzeko prozesua?

Zirkularra: gaiak identifikatu, ikertu, narrazioa sortu eta datuak aurkeztu, diseinatu, hedatu eta eraginaren ebaluatu. Gero eta maizago kolaboratzaileekin lanean ari gara gai bakoitzaren inguruan eduki mota anitzak sortzeko, eta sarean zein saretik kanpo, horien zabalpena handitzeko.

Apurka-apurka munduko leku askotara heltzen ari da zuen lana.

Gaur arte lanak ingelesez eta arabieraz sortu eta hedatzean jarri ditugu gure indarrak. Halere, guregana jo duten taldeen eta norbanakoen lan boluntarioari esker, gaur egun gure grafikoak hamabi hizkuntzetan daude eskuragarri eta hala, dozena bat estatutan antolatu dituzte erakusketa publikoak.

Egia, aukeratutako informazio iturrien arabera eraikitzen dela diote batzuek.

Erabat objektiboa den informazioz ez dago. Kasurik okerreanean, gertakariak desitxuratu eta desinformatzeko lanean diharduten antolakundeak daude. Eta kasurik onean, zer gai jorratu jabeek ezarritako mugek eta testuinguruak baldintzatuta aukeratzen duten antolakundeak daude. Palestina eta Israelen kasuan, antolakunde asko Gaza eta Zisjordanian (batzuetan Jerusalem ekialdea barne) begira baino ez dute lan egiten, errefuxiatu palestinarren eta Israelen bizi diren palestinarren egoera albo batera utziz, loturarik ez balute bezala.



EUSKAL HERRIA

País Vasco · Basque Country · Pays Basque

historia · paisaia · kultura

Lainoak ezkatzen dizkionean maite ditu maite poetak gure bazterrak, orduan, eta orduan baino ez, so egin lezakeelako bere buruaren baitan. Bestela, ezinezkoa zaio, hain dira liluragarriak eta ederrak, bere eta gure begietara, Euskal Herriko txokoak. Liburu honetan gure herriari begiratu diogu, zuzen eta garden, paisaiari, naturari, historiari eta kulturari erreparatuta. Eta hor azaldu zaigu **Euskal Herria**, bere horretan, guk ikusten dugun bezala. Lainoa izan zein oskarbi izan.






PALESTINA IKUSARAZTEN

Erakunde independentea garenez, aipatu-tako mugek ez gaituzte hainbeste baldintzatzen. Puntuak elkarlotzen saiatzen gara, errespetatuenak diren iturrietatik informazioa lortuz, holistikoagoa den irudia sortzeko. Halere, gure narrazioak ez dira egoerari buruzko egia bakarrik. Horregatik, informazio iturri askorekin lagunduta zabaltzen ditugu infografiak, gaiak gehiago jakin nahi duenari sakontzeko aukera emanez.

Palestinarekiko jarrera politikorik hartu al duzue talde gisa?

Talde independentea gara eta beraz ez dugu afiliazio edo jarrera politikorik. Egiten dugun lan motari begira kaltegarria eta kontraesankorra izango litzatekeela uste dugu. Hau esanda, herritarren ikuspegitik eta berdintasuna, askatasuna eta ordaina jasotzeko eskubideetan oinarrituta ulertzen dugu gatazka. Goitik beherako konponbide politikoei ez diegu arreta berezirik eskaintzen. Jorratzen ditugun gaietan eta grafikoetan hori guztia islatzen delakoan gaude.

Elikadura, osasuna edo segurtasuna izateko moduko eskubideei Israelen okupazioak nola eragiten dien kontatzen dute zuen infografiak. Zer diozue Palestinako Agintearen ardurari buruz?

Justizia sozialaren prisma unibertsaletik begira egiten dugu lan, eta hori, ongi diozun bezala, ez dagokio soilik Israelen jazarpenari. Hain zuzen ere, Palestinako Agintearen (PA) rolari buruzko lan bat prestatzen ari gara. Infografia horretan azalduko dugu PAren segurtasun aparatuak gizarte zibilaren ekimenaren aurka duen jarrera gogorra, Israelen okupazioaren aurkako erresistentzia ahultzeko xedez.

Nola ulertzen duzue sare sozialen rola justizia sozialaren bidean?

Sare sozialak tresnak baino ez dira, eta aurrerantzean beste tresna batzuek haien

ARGIA eta Visualizing Palestine elkarlanean

Bi proiektuok Creative Commons lizentzia librea erabiltzen dugula baliatuz, Euskal Herriko testuingurura egoki moldatzen diren bederatzizko infografia euskaratu ditugu ARGIA eta VPren arteko elkarlanari esker. Grafikoak ARGIAko begizta.net blogean deskargatzeko eta inprimatzeko moduan sareratu ditugu, doan eta nahieran erabiltzeko.

lekua hartuko dute. Mezu ofiziala desafiatzeko, baztertutako gaiak gogora ekartzeko eta ekimen eta ekintza eraldatzaileen gainean arreta jartzeko, gaur gaurkoz, ireki eta aske samarrak dira. Hala ere, gero eta herrialde gehiagotan sare sozialen "irekitasuna" baliatzen da ahots disidentearen kontrako neurri gogorak hartzeko. Bitartean, sare sozialetako aktore garrantzitsuenek gero eta indar gehiago daukate eztabaida onargarriaren mugak zaintzeko.

Gai horrekin lotuta, Electronic Frontier Foundation taldearekin batera OnlineCensorship.org proiektuan lan egin dugu. Sare sozial ezagunenetan gertatu diren zentsura kasuen berri emateko proiektua da.

Zeintzuk izango dira zuen hurrengo urratsak?

Kolektibo gisa, gure kolaboratzaileekin batera zenbait proiektu paralelotan lanean ari gara infografia eta istorio grafikoaren bidez zokoratutako gaiak nabarmentzeko. Egiptoko hedabideetako zentsura edo gazteen bazterketa mundu arabiarrean, esaterako.

Gure asmoa da proiektuak kolaboratzaileek beraiek gidatzea. Visualizing Impact taldearen orain arteko filosofia eta lan moldeari jarraiki, TEDx proiektuaren eredu deszentralizatuaren antzera, "Visualizing X" bilakatu nahiko genuke Palestinarekin egin dugun moduko proiektu gehiagoren marka.

Visualizing Palestineri dagokionez, 2015ean beste talde batzuekin elkarlana sustatu nahi dugu estrategia partekatua sortzeko eta justizia sozialaren aldeko mugimendu palestinarra bere osotasunean indartzeko. Halaber, une kritiko batera heltzen ari garela jabetu gara. Gainerako gatazka historikoetan gertatu den bezala, Palestinako aldarrikapena den ahotan egongo da, eta guk prozesu hori sustatzeko eta azkartzeko konpromisoa daukagu. ■



Aire ahizpak

Bidexka



Disko berria Durangoko azokan salgai

Zenbat Gara elkartearen erakustokian

Erroa argitaletxea | **soinu eta doinu** bilduma

Done Bikendi 2 - 48001 - Bilbo - bulegoa@erroa.net - www.erroa.net


mikel



GURUTZETAKO
OSPITALEAN
JAIO NINTZEN



ihintz



BAIONAKO
CÔTE BASQUE
OSPITALE-ZENTROAN
JAIO NINTZEN



Rami



KALANDIAKO
CHECKPOINTEAN
JAIO NINTZEN



2000 ETA 2005 URTE BITARTEAN*

**67 AMA PALESTINAR ISRAELGO CHECKPOINTETAN
ERDITZERA BEHARTU ZITUZTEN.
37 UME HIL ZIREN.**



Isolatutako zonaldeetako emakume palestinar askok erditzea etxean izatea nahiago dute, edo haien familiarekin batera ospitaletik gertuko leku batera joaten dira erditze-data hurbiltzean.



Nazio Batuek emaginentzako formazioa sustatu zuen egoera horretan dauden emakumeak artatzeko, baina palestinarren mugimendu askatasunari Israeliek ezarritako murrizketen gaiari heltzeko ez dira gai izan.



2012ko ekainean, Zisjordanian palestinarren mugimenduei ezarritako 542 oztopo zeuden, tartean 61 checkpoint. Han bizi diren palestinar askorentzat ezinezkoa da ospitalera heltzea Israelgo checkpoint bat igaro gabe.

* 2005etik hona ez da checkpointetari jaioetako haurrei buruzko jenerazio sistemakoa. Hala ere, horrekiko kasuak gertatzen dira. Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak 2008 eta 2009an azperratu bezala, besteak beste.

ITURRIAK:
PA Ministry of Health, 2006, Annual Report, Health Status in Palestine 2005, p.8
<http://www.moh.ps/Range1?pageno=4&id=9>

UNAHR, 2009, The issue of Palestinian pregnant women giving birth at Israeli checkpoints: Report of the High Commissioner for Human Rights

UNAHR, 2010, Report on the issue of Palestinian pregnant women giving birth at Israeli checkpoints

UNFPA, 2007, Checkpoints Compound the Risks of Childbirth for Palestinian Women, accessed 2 January 2013

UNOCHA, 2012, West Bank Movement and Access Update (September 2012), p.15, p.17

GAZAKO URA MUGATUA ETA KUTSATUA



ITURRIAK

Itzheim, 2000. Thesis for a Solution: The Water Shortage in the Occupied Territories and its Solution in the Final Status Agreement, p.39.

C. Meissersmidt, Bristol University, 2011, Water in Gaza: Problems and Prospects, p.3-6, 20-21.

Blue Planet and LifeSource, 2012, The Human Right to Water in Palestine: In Our Right to Water, pp.4-5.

OCHA, August 2009, Locked In: The Humanitarian Impact of Two Years of Blockade of the Gaza Strip, pp.4, 22, 23.

Save the Children and Medical Aid for Palestine, 2012, Gaza's Children Falling Behind: The effect of the blockade on child health in Gaza, pp.9, 16, 17.

Thirsting for Justice, 2003, Right to Water in PT, pp.18, 29.

UNICEF, March 2011, Protecting Children from Unsafe Water in Gaza, pp.7, 9, 10, 16.

World Bank, 2006, Assessment of Restrictions on Palestinian Water Sector Development - West Bank and Gaza - pp.27, 29, 30 (Original source: Fieldwork interview, WHO, Gaza city, November 24).

REVISION 01

2012 ABU 29

LEGEA IKUSTEN UZTEN EZ DUEN HARRESIA

NAZIOARTEKO LEGEDIA ETA PALESTINAKO ZIS JORDANIA OKUPATUAN ISRAEL ERAIKITZEN ARI DEN HARRESIA

► 2002ko EKAINA

ZIS JORDANIA "HESI IRAUNKOR" BATEN ERAIKUNTZA ONARTU ZUEN ISRAELGO GOBERNUAK

0KM



Zer da Nazioarteko Justizia Auzitegia (NJA)?

Nazio Batuen Auzitegi gorena da NJA. 1945eko ekainean eratu zen. Funtzio nagusiak: estatuen arteko gatazkak konpontzea eta nazioarteko legean oinarritutako iritziak ematea. Bere ebazpenak kontuan hartzen dituzte herrialde gehienek.

15

Osaketa

Nazionalitate ugariako 15 epailek osatzen dute Auzitegia. Estatu bakoitzak gehienez epaile bat.

► 2004ko UZTAILA

NJAK HARRESIARI BURUZKO EBATZIA PLAZARATU ZUEN, NAZIO BATUEN ASANBLADA OROKORRAK ESKATUTA.

Buergenthal epailea
Kooijmans epailea
Elaraby epailea
Koroma epailea
Guillaume epailea
Shi epailea
Owada epailea
Parra-Aranguren epailea
Ranjiva epailea
Rezek epailea
Simma epailea
Al-Khasawneh epailea
Vereshchetin epailea
Tomka epailea
Higgins epailea

190KM

14
BOTOAK
1

HARRESIA LEGEZ KANPOKOA DA



Lurren anexioa de facto bermatzen du



Segurtasunaren ikuspegitik ez dago justifikatuta



Giza Eskubideen Legea urratzen du

14
BOTOAK
1

ISRAELEK HARRESIA ERAITSI BEHAR DU

14
BOTOAK
1

ISRAELEK KALTE-ORDAINAK EMAN BEHAR DIZKIE PALESTINARREI

13
BOTOAK
2

ESTATU GUZTIAK HARRESIAREN AURKA EGITERA BEHARTUTA DAUDE

14
BOTOAK
1

NAZIO BATUEN ERAKUNDEAK ESKU HARTU BEHARKO LUKE

440KM

► 2014ko UZTAILA

NJAREN ERABAKITIK 10 URTERA HARRESIAREN ERAIKUNTZAK AUERRERA JARRAITZEN DU

ITURRIAK

ICC, 2012, *About the Golan Heights* (9 May 2013)

<http://www.iccnw.org/press-releases.php?id=11>

ICC, 2004, *Legal Consequences of the Construction of a Wall in the Occupied Palestinian Territory*

UN OCHA, 2012, *Field Sheet on the Humanitarian Impact of the Barrier*

REVISOR: 2014KO UZTAILA

«Agian naturaren falta sumatzen dugulako itzultzen gara mendira»

Munduan barnako bidaiak batez ere barne bidaiak direla esan digu jendeari mendi gailurrak oparitan ematen dizkion mendizale kementsuak.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco / Felipe Uriartek utziak

Aita itsas gizona eta semea lehorzalea?

Aita bizkaitarra eta barrualdekoa zen, Galda-kaokoa. Itsas gizona izateko ikasi zuen. Gazte-gazterik Pasaia joan eta han hasi zen lanean Pisbe izeneko bakailao enpresa handian. Zortzi ontzi zituen enpresak eta horietako batean, Galerna deiturikoan, pasa zuen bizitza erdia. Ternuan lan egin zuen bakailao arrantzan. Eta Pasaia neska eder batekin ezkondu zen, Angelita Camara, gure ama, oraindik bizi dena. 97 urte ditu.

Zu itsasoan ibili zara?

Bai, baina belaontzietan. Baditut lagun pirata batzuk eta haiekin egin ditut halako bidaiak politikak. Luzeena izan zen Bartzelonatik abiatu eta Groenlandiako mendebaldeko kostaraino, Umanaq fiordoraino. Zazpi hilabeteko itsas bidaia ederra izan zen.

Mendizaletasunaren harra txikitatik sentitu zenuen?

Euskal Herriaren erditik etorri eta itsasora jo zuen gure aitak, nik aldiz itsasertzean jaio eta mendira jo nuen. Nork daki egiten ditugun gauzak zergatik egiten ote ditugun. Bizitzak eskutik hartu eta mendietara eraman ninduen. Pasaia oso herri berezia da, fiordo bat bezalakoa. Mendi txikitxoak daude, itsasoa dago... Amets egiteko tokia da. Nik amets asko egin ditut Ternuarekin, itsasoarekin... Behin aitaren barkuan foka bat ekarri zuten eta beste behin hartz bat. Oso gaztaro ameslaria bizi izan nuen eta nik beti errua, modu samurrean, nire herriari bota diot. Pasai Donibane beti izan da nire bihotzean eta segitzen du izaten nire bizitzaren erdian. Nire iruditerian beti da bidaia guztietako hasiera

eta bukaera. Bidaia zirkularrak egiten ditut beti. Eta bizi izan naizen toki guztiak ere, Donostia, Hondarribia, Gaintza, Oñati... Toki horiek guztiak Pasai Donibanen sartzen ditut.

Norekin hasi zinen mendira joaten?

Gehienetan bakarrik. Gustuko nuen han ibiltzea. Eskalada ikastaro bat egin nuen eta itsas argiaren inguruan dauden harkaitzetara joaten nintzen maiz, batez ere eguraldi txarra egiten zuenean eta olatuek harriaren kontra jotzen zutenean. Olatuak lehertzen ikustea gustuko dut. Oso giro estetikoa da hori. Gero Pirinioetara joaten hasi nintzen eta ondoren Alpeetara, Himalaiara...

Eta egun, norekin ibiltzen zara mendian gustura?

Bakarrik ibiltzea ederra da, askea eta bakartia sentitzen zara, eta toki ona da mendia bakar-

NORTASUN AGIRIA

Felipe Uriarte Camara. Pasai Donibanen sortua, 1944ko martxoaren 17an. Mendigoizalea eta goi mendietako gidaria. Ikasketaz industria ingeniaria da, baina mendia da bere pasioa. 1974an "Tximist" Everestarako lehen euskal espedizioan parte hartu zuen. Bi urte geroago Mendiak eta Herriak sortu zuen, natura eta kirolarekin lotutako enpresa. *Euskaldunak Everest Mendian. Buru ilhun lurruntsua* euskaraz eta gaztelaniaz plazaratutako liburua eta hainbat dokumentalen egilea da. 71 urterekin gelditu gabe ari da jendea eramaten munduko bazter ederretara, "gailurrak oparitzen", berak dioen bezala. Bidaiaren artean, Gaintza herriko bere etxetik Balerdi mendian pausatzen ditu begiak.





dadea dastatzeko. Taldean ere gogoko dut, sarri horrelakoetan lanean nago, eta mendia konpartitzea ederra da, ogia, gazta eta ardoa konpartitzea bezain ederra. Azken garai honetan umeeekin mendian ibiltzea laket dut. Eta are ederragoa bikotekidearekin mendian aritzea, bakarrik ez eta maite duzunarekin zaude naturan.

Mendizale asko Euskal Herrian. Aparteko afizioa dago hemen?

Baietz esango nuke. Euskal Herria horren txikia izanik ere, hemen baditugu hiru mendizale zortzi milako guztiak egin dituztenak. Eta hori toki askotan ez da gertatzen. Nik dakidala, Frantzia osoan oraindik ez dago mendizalerik

Auñamenditan.

zortzi milako guztiak egin dituenik, adibidez. Zergatik ote? Zalantzarik gabe mendizaletasuna ez delako soilik kirola. Kirol hutsa baino ederragoak diren gauza batzuk badira hemen. Mendizaletasuna eta bidaia hertsiki lotuta daude. Ezin da ulertu mendia bidaiarik gabe. Pentsatzen dut gure gizartea garai batean naturarekin oso lotuta egon dela. Hiri handirik ez da izan hemen orain dela gutxira arte eta gure hiriak baserritarrez beteta daude. Agian naturaren falta sumatzen dugulako itzultzen gara mendira, milaka urtez gure ingurunea izan den horretara.

Belarriak erne edukita, zer entzuten da mendian?



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com

Natura eta gu

“Mendia kirola da baina baita bidaia ere, deskubrimendua. Mendizaletasunean gizaki modernoak barne bidaia aurkitu du. Mendi handi batean gauza asko aurkitzen duzu: zeinen ahulak garen, zer den beldurra eta horri aurre egin behar izatea. Naturaren indarraren pertzepzioa zer galduta dugun argi ikusten da mendian”.

Norberaren barnealdeko zurrumurruak, istorioak, asmoak, nahiak, ahuldadeak, beldurrak, sasoia... Txikia zara eta txiki sentitzen zara, baina aldi berean handi, naturak asko ematen dizulako. Zure txikitasunean handi egin behar duzu eta zure onena atera, han segitzeko.

Onena atera naturarekiko eta besteekiko ere bai?

Bai. Zure onena eta zure txarrena ere ateratzen da. Mendiak ez zaitu hobe egiten, baina zer zaren agerrarazten du, nolakoa zaren zure barne-barnean.

Lehia handia al dago goi mailako mendizaleen artean?

Bai, bai lehen eta bai gaur egun ere. Baina hori ez da batere osasuntsua. Mendizaletasunaren

idatzi gabeko arauetan lehia izatekotan mendizaleok mendiarekin dugu, naturarekin. Lehia baino, harremana esango nuke. Letek aspaldi esan zuen: “Naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea”. Espedizio handietan batez ere, aldaketa handia nabari da azken urteotan. Gure gizarte mendebaldarra aberatsagoa da orain, europarra, ipar amerikarra, Australiakoa... eta errazago mugitzen gara. Gizartearen joerak ere aldatu dira. Turistak garela? Bai. Baina horrek bere alde onak ere baditu, horrekin bertako jendeak lana topatu duelako. Asko eztabaidatzen da, adibidez, sherpak negozioa egiten ari omen direlako Everesten. Mespretxuz esaten dute hori. Ni ez nago batere ados. Haiek lanean ari dira eta izugarritzko lan gogorra egiten dute gainera, eta horri esker beren seme-alabek ikasteko aukera dute eta haien etxeak hobeak dira orain. Everest, Kilimanjaro, Andeetan bizi den jendea garapen handia ekarri die mendiko turismoak. Askotan mendebaldarrok ohitura dugu gure begiekin ikusteko dena eta ematen du munduko zentroa hemen dagoela, eta ez da horrela. Himalaian bizi den batentzat munduaren zentroa han dago. Zentro asko dago munduan. Egin beharko genukeena da denak garbiago jokatu, zaborrarekin adibidez. Orain hobeto doa, baina asko gelditzen da egiteko.

Kalean da abenduko



aizu!

- Zer aurkituko dugu Durangoko Azokan?
- Martxoak 3, oroimena gal ez dadin lanean
- Mikel Onandia arin-arin
- Ondarroako Beikozinira bisita
- Idazlegaiantzako bultzada

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizunet.org



Dirua al da edozein tokitara joateko balio duen pasaportea?

Ez du zergatik horrela izan behar: askoz gehiago balio du abiatzeko gogoak.

Eta dirutan, zenbat balio du bidaia handi horietako bat egiteak?

Everestera 50.000 euro. Kilimanjarora 4.000 inguru.

1974an "Tximist" lehen euskal espedizioa egin zenuten Himalaiara, Everestera.

Horrela hasi zen garai modernoa Euskal herriko medizaletasunean. 1969an Peruko Andeetara joan zen talde bat. Inork inoiz zapaldu gabeko bost mendi egin zituzten eta ondoren hasi ziren prestatzen Himalaiarako lehen espedizio hau, Cegasa enpresak babestua. Juan Zelaia, enpresa horretako nagusia, euskal mendizaletasunean oso pertsona berezia izan da eta berehala ikusi zuen proiektua oso interesgarria izan zitekeela. Hamabi lagun izan ginen eta Nepaleko hogeita hamar bat sherpa. Ez ginen gailurreraino igo, baina esperientzia handia hartu genuen hurrengo espedizioetarako.

1976an Mendiak eta Herriak sortu zenuenetik zuzendari jarraitzen duzu.

Esango nuke zuzendaria baino gehiago idia naizela. Sortu eta berehala hasi ginen bidaiek

Koskulak mendian, 7.010 metroan.

Mendian arriskua non dagoen

"Noiznahi, nonahi. Erne ez egotean dago arriskua. Aterpera heldu arte erne ibili behar duzu gailurra ez baitago tontorrean, aterpean baino, litro bateko garagardo pitxerra eskuan, lagunaren ondoan eserita".

egiten Perun, Pirinioetan, Nepalen... Mendian egiten diren jarduera guztiak antolatzen eta gidatzen ditugu: ibilaldiak, igoerak, mendiko eskia, harkaitz eskalada, ibilaldi samurrak, 6.000-7.000rako espedizioak... Denetik. Lau hasi ginen: Martin Zabaleta, Xabier Erro, Julio Villar eta ni neu. Bizitzak beste bide batzuetatik eramanez beste hirurak eta ni naiz segitzen duen bakarra. Egun zazpi lagun gara eta orain jende gazte eta zoragarria dugu, oso ondo prestatuak eta mendi gidarien ofizioa maite dutenak: Igor Lasa, Julen Reketa, Garo Azkue, Leire Urretxo, Aitor Rufo eta Ibon Ginea "Mutiko".

Bazter guztietako xokorik ederrena?

Ederrena ez dakit, baina Euskal Herria munduko ederrenetakoa, zalantzarik gabe. Mendirik politena Balerdi, etxeko leihotik ikusten dudana delako. Eskura dut eta oso ederra da gainera. Baina leku guztietan badira ikuspegi ederrak: basamortuan dagoen bakardadea eta ilunabarrean sortzen diren argi eta koloreak, toki txikienean dagoen baso puska hori udazkenean... Planeta osoa da ederra.

Eta barruan iltzatuta gelditu zaizkizun hiru toki zehatz?

Menditik jaitsi eta hiru hiri aipatuko dizkizut: Isfahan Iranen, Gao Malin, eta Copiapó Txilen. Hirurak dira ederrak, geografia ederrak batean kokaturik, eta berezko barne geografia berezia dutenak. Hango biztanle xaloak beraien kaleetan pasean ibiltzen dira lasai.

Zer bidaia egiteko gogoa duzu?

Beti amestu dut Euskal Herrian zehar bidaia luze-luze-luze bat osatzea, herriz herri, mendiz mendi, jendez jende, hizkeraz hizkera, urtaroz urtaro.

Denboraren makinan sarturik zein garaitara egingen zenuke salto?

Shackleton eta Geoffrey Winthrop Young-en garaitara. 1876-1958. Shackletonen Endurance itsasontziko kidea gustatuko litzaidake izatea eta Youngen sokakidea Breithorngo 4.160 metrora dagoen Ipar Ertzean. 1920an Pasai Donibaneko San Juan traineruak Kontxako Ikurrina irabazi zuen, patroia Matxet handia zuela. Garai ederrak haiek. Halere gustura nago hemen eta orain. Garai hobeak datoz Euskal Herriarentzat, askeagoak, eta horretarako nire alea ipintzen saiatu nahi nuke.

Mendian hotzak eta bakardadeak inguratuz, zer duzu buruan?

Hotzari ez utzi gehiegi nire gorputzera hurbiltzen. Bakardadeari begietara begiratzea, konplizitatez.

AZKEN HITZA

Interes politikoak

“Gaur egun mendizaletasun bi antzeman ditzakegu: bat mediatikoa, telebistan agertzen zaiguna, eta bestea isila, inon agertzen ez dena. Mendizaletasuna, futbola, atletismoa edo beste kirol batzuk bezala, politikarako erabili da, gaur eta beti, eta nazio guztietan. Aspaldiko garaietan ere gertatzen zen. Edurne Pasaban anderea, esate baterako, erabilia izan da zentzu politiko batean. Euskalduna izanik, Espainiako Estatuak espainiar bihurtu du interesatzen zaiolako. Kanean nabarmena den hori esan egin beharra dago. Euskaldunok ere erabili izan dugu mendigoizaletasuna politikoki esateko ‘begira euskal mendizaleok, garaiezin dirudien gailur horretan zutik eta ikurriña eskuetan’. Aldea dago gu gure mendigoizaleez harro gaudela eta Espainiakoek, aldiz, gure mendigoizalea lapurtu nahi digutela. Pasaban 14 gailurrak lortzen ari zen bitartean, dozenaka neska eta mutil, emakume eta gizon ari ziren mendi handi eta txikiak egiten isil-isilik”.



Heriotzarekin zer harreman duzu?

Elkarri zeharka begiratzen diogu, disimulan.

70 urte bete eta gero maldan behera zoazela sentitzen duzu?

Bizitza osoan ibili izan naiz maldan gora, maldan behera, ohituta nago.

Zer aldatuko zenuke zure bizitzan?

Dagoeneko ez dago ezer egiterik, bizi dudana bizi izan dut. Eta nolako lana orain aldatzen hastea!

Eta gure Euskal Herri honetan?

Euskararekiko euskal jendearen atxikimendu eskasa. Euskal abertzaleen arteko arrakala konpondu, itxi, eta denok bat egitea. Independentziarako bide luze eta zailean Euskal Herriko Iparra eta Hegoa hurbildu eta batzea, ezinbestekoa baita, denok dugu bes-

teengandik zer ikasi. Iparrak Hegoa behar du, Hegoak Iparra.

Zein da zure helmuga, gailurra, helburua bizitzan?

Planetan gailur asko daude ezagutu nahi nituzkeenak, haien haizea dastatu, hango herriak ezagutu. Menditik kanpo, gure herriarengatik zerbait egitea eta nire azukre koxkorari bizitza goxatzen laguntzea.

Beti izan dut joera aurrera begiratzeko. Dudan pena bakarra da denbora gutxi gelditzen zaidala jo eta ke aritzeko mendian. Bizitakoa hor dago eta ederra da. Goi mendi gidaritzak badu alde oso on bat: mendi gailurrak oparitu egiten dizkiot nirekin mendira etortzen den jendeari, nire soka lotzen den orori. Hori ofizio zoragarria da, ezta? Mendi gailurrak oparitu, berdin lanean berdin lagunekin izanda ere. Emozioak, herriarekiko, naturarekiko, pertsonekiko emozioak oparitu. ■



ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak

Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak

Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

www.galparsorookindegia.eu

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215

info@cuadrabus.com

elhuyar APP GUNEA

ELHUYARREN **APP** BERRIAK
DURANGOKO AZOKAN

Elhuyar
hiztegi elebidun
guztia,
orain APP
bakarrean!



Bisitatu **Elhuyar**ren stand-a
(Artekale 55-56),
MUGIKORRERA ETA TABLETARA
deskargak egiten
lagunduko dizugu



adi!

Aurten ere,
REMOVE PLANA
izango duzu.
Ekarri zure
euskara-gaztelania
hiztegi zaharra
eta % 30eko
deskontua zure
hiztegi berria
erosterakoan



ONLINE / OFFLINE



HITZMIX JOLASAK




ESPAINIARRAK vs. EUSKALDUNAK

ERREGIMEN hau
FRANKISMOAREN
CONTINUUM BAT
DA!

ORAIN
ARTEKOAN

DEMOKRAZIAN
BIZI GARA
HEMEN DENA
POSIBLE DA!



ERREGIMEN hau
FRANKISMOAREN
CONTINUUM BAT
DA!

ORAINGO
JOERA

DEMOKRAZIAN
BIZI GARA
HEMEN DENA
POSIBLE DA!





**June
Fernández**



KAZETARIA

Feminismoa eta gizonen egitekoa

AZAROAN BILBON *Maskulinitatea eta giza garapenerako Ipar-Hego arteko topaketa* egin zen Euskal Herriko, Espainiako Estatuko eta Latinoamerikako kideen partaidetza-rekin. Zentzu handia dauka maskulinitasun ereduak giza garapenarekin duen lotura agerian uzteak. Indarkeria matxistari buruz aritzean, arreta emakumeengan jartzen da: nola atera daitezkeen egoera horretatik, zer amodio eredu irentsi duten tratatu txarrak onartzeko, eta abar.

Hitzaldietan partaide eta entzule gehienak emakumeak izan ohi dira, genero indarkeria emakumeon arazoa balitz bezala. Berdintasunaren aldeko gizonak, ordea, indarkeria matxistaren kontrako borrokan arreta gizonen erantzukizunean jartzen dute eta eurekin ere prebentzio lana egitea proposatzen dute, eguneroko jarrera mikromatxistak identifikatuz eta gatazketan biolentzia erabiltzearen joera soziala errefusatzuz.

Zirrara ikaragarria egin zidan berdintasunaren alde lan egiten zuten gizonen lana ezagutzeak. Baina laster ulertu nituen gizon berdin zaleen eta feministen arteko harremanetan nabarmen diren mesfidantza eta tirabiren zergatiak

Are gehiago, beste arazo sozialen inguruko genero irakurketak egiten dituzte, esaterako, trafiko istripuak, drogen kontsumoa edota kriminalitatea maskulinitasun tradizionalaren gizarteratzearekin lotzen. Botere grina, arriskuak hartuz adorea etengabe adierazteko beharra edota sexualitate eredu berekoi eta aseeginaren sustapena kritikatzeko dituzte, zaintza, elkartasun eta sentiberatasun jarrerak aldarrikatuz.

Zirrara ikaragarria egin zidan berdintasunaren alde lan egiten zuten gizonen lana ezagutzeak. Baina, laster ulertu nituen gizon berdin zaleen eta feministen arteko harremanetan nabarmen diren mesfidantza eta tirabiren zergatiak. Feminismoa jabekuntza eta askatasun bide bat da ema-

kumeontzat, eta giro horretan gertatzen diren gizon berdin zaleen jarrera matxistak bereziki mingarriak dira, horiek identifikatzea zailagoa delako eta gure “etxean” ere eraso sexistak bizitzeko arriskuan gaudela suposatzen duelako.

Miguel Angel Arconadak, berdintasunean aditu den hezitzaileak, hitzaldi batean onartu zuen maskulinitasun berrien defendatzaile askok maskulinitasuna tradizionalaren kostuak ezabatzen dituztela, —esaterako, emozioak adierazteko edota sexualitate eredu zabaltzeko aukerak—, baina gizon izateagatik dituzten pribilegioak mantenduz: lidergoa, estatusa, boterea...

Jokin Azpiazu soziologoak ere *Pikara* aldizkarian kritikatu zuen maskulinitasun berrien diskurtsoaren enfasia identitatean kokatzen dela (zer esan nahi duen “gizon” izateak gizonarentzat) euren botere eta hegemonia onartu eta arbuia baina. Mugimendu honen begirada heterosexista dela ere uste du, erreferentzia subjektu bezala bikotean bizi den gizon heterosexuala izan ohi delako.

“Berdintasunarekin gizonok ere irabazten dugu”, esan ohi dute talde hauek gizonetakoak erakartzeko. Baina, egia esan, gizonak boterea galdu behar dute sexistak eragindako desorekarekin bukatzeko, esaterako enpresa, sindikatu edo elkarre politiko baten zuzendaritzan emakumeak gehitzeko. Bestalde, zaintza ardura partekatzea ez da bakarrik haurrekin jolastea, baizik eta baita komuna garbitzea eta adineko senideen beharrei erantzutea ere. Gizonak onartu behar dute matxismoaren kontrako konpromisoa bidegabekeria historiko baten kontrako uste sendotik abiatu behar dela, euren botereari uko egiteko abantaila berrien, sarien eta txaloen zain egon gabe.

Nire asmoa gizon berdin zaleen ekarpenak eta konpromisoa aintzatestea da, baina euren pribilegioen islen aurrean tinko mantenduz eta, euren gizarteratze matxista deseraikitzen duten bitartean, emakumezkoen guneen beharrak defendatuz. ■





Rosa María Martín Sabarís

♦ EHUko IRAKASLEA.

IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

GAL eta kontzientzia objektzioa

UNIBERTSITATEKO ikasketen azken eraldaketa 1999an hasi zen Boloniako Adierazpena sinatu zenean. Etor-kizunean izango genuen ikasketa eredua hasi zen sortzen. Orduko ikasleen protestak handiak izan ziren, eurek ikasketa plan berriak ezagutuko ez zituzten arren. Aitzitik, egun unibertsitatean ditugun ikasleak haurtzaindegian zeuden orduan, eta ez zuten aukerarik izan hezkuntzaren merkantilizazioaz ezbataidatzeko. Iragan laburra dute egungo ikasleek. Ez dute gogoratzen Boloniako Adierazpena, eta ez dute ulertzen GAL akronimoak beste batzuegan sortzen duen egozina.

Ikasketa Plan berrien sorkuntza garaian, Gradu Amaierako Lana, Gradu Bukaerako Lana izan zedin ahaileginak egin ziren, garai beltzak ez gogoratzeagatik edo. Baina azkenean toki gehienetan GAL izenarekin gelditu da unibertsitateko oinarritzko ikasketei amaiera ematen dion lana. Ikasle askorentzat GAL ikas-turte amaieran entregatu beharreko lana da, ez besterik.

Horrelako lau ikasleren tutoretza egokitu zait aurren. Irakasleak arloak eskaintzen ditu, eta emaitza akademikoen arabera, sistemak ikasleak esleitzen dizkio. Nire kasuan, arloa dokumental baten ekoizpena eta errealizazioari dagokio. Alegia, ikasleek dokumental bat egin behar dute.

Tutoretza-bilerak egiten hasi naiz lau ikasleekin batera. Eta beti bezala, zera iragarri diet: ni lagun izango nautela ikasketa prozesuan; nik dokumentala egiten lagunduko diedala, baina gaia aukeratzeko erabateko askatasuna dutela. Hasi dira buruan bueltaka dituzten gaiak aipatzen: ahozko kultura, arrantzaleen bizimodua, isiltasuna, musika talderen bat, *agility* izeneko jarduera berria...

Laugarren ikasleak bat-batean bota du berea: “Guardia Zibila”. Isilunea. Txistua irentsi dut. Urtero luzatzen diedan galdera atera zait: “Eta ikuspuntua?”. Ikasleak guardia zibilen bokazioari buruzko dokumentala egin nahi duela zehaztu du. Orduan, beste ikasle batek zera galdetu dio: “Zertarako? Duten irudia garbitzeko?”. Azken galdera ez zaio gustatu gaia proposatu duenari.

Bulegotik irten direnean, a zelako fardela utzi didaten pentsatzen gelditu naiz, a zelako zeregin zaila,

a zelako erronka! Lankideekin komentatu dut. Batek nik lan horren tutoretza ez nukeela egin beharko esan dit, “gutxienez, Guardia Zibilak barkamena eskatu arte”.

Unibertsitateko hezkuntzan zeintzuk dira kontzientzia objektzioa egiteko arrazoiak? Zeintzuk mugak? ■



Laugarren ikasleak bat-batean bota du bere gaia: “Guardia Zibila”. Isilunea. Txistua irentsi dut. Urtero luzatzen diedan galdera atera zait: “Eta ikuspuntua?”. Ikasleak guardia zibilen bokazioari buruzko dokumentala egin nahi duela zehaztu du



Liburu azoka

Galdakaon, abenduaren 18tik 22ra Mugurun.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Inma Errea

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Astea eta jaia berdintze bidean

AZAROAK 29 EGUN DITU, larunbata da, egun handia Iruñean: San Zernin patroiares festa. Hala ere, garai batean ez bezala, denda asko irekita daude: merkataritxi ugari irekitzea erabaki dute, azalera handiko merkataritza-guneen eta marka handien bultzadaren pean eta krisiak behartuta. Udal-merkatuek beraiek ateak ireki dituzte, eta haietan salmenta-postua duten-etatik gutxi batzuek bakarrik egin diote muzin irekitzea-ri. Zabaltzea erabaki dutenen xede nagusia ez da asko saltzea, baizik bezeroei atsegin ematea.

Dendariak ez dira, ordea, Iruñeko patroiares festan lan egiten ari diren bakarrak: gure etxe ondoko etxabe batean, obretan ari dira eraikuntzako langile batzuk.

Hurrengo eguna ere festa da, igandea, baina gure etxe ondoko etxabearen, osasuneko aseguru-etxe baten bulegoetan, obretan segitzen dute: gure kale beti zatatsuan —non igartzen baitugu igandea dela ibilgailuen burrunbaren ordezkari kanpaien hotsa entzuten dugulako—, mailu pneumatiko baten durundak kolpatu dizkigu belarriak igande honetan.

Mailuaren zarataren eraginpean, jakin-mina piztu zait: zertan ariko dira halako igande batean Alemaniako Friburgo Breisgau hirian? Hura bisitatzean, iazko abuztuan, igandearekin, deigarria egin zitzaidan bertako

isiltasuna, karrankarik gabeko giro barea, tranbiek, kanpaiak eta espaloien pareko erretenetako ur-jarioaren marmario leunek baino ez hautsia. Milaka bisitari ginen han, eta hiria goizean goiz hartua bagenuen ere, denek itxita zirauten, ohiko salbuespenekin: jatetxe, taberna eta kafetegiak. Han ez omen du balioko gure artean igande eta festa egunetan dendak irekitzeko zenbaitek erabiltzen duten argudioa —oi, turistak, zer egingo dute koitaduek, gure kaleetako dendak itxita aurkituz gero?—.

Hemen, berriz, gero eta arruntagoa da festa-egunetan jai ez egitea garai batean festak gordetzea ohikoa zuten sektoreek. Ordutegien liberalizazioaren alde daudenek diote lanegunak eta festak berdinduta kontsumitzaileok irabazten dugula: noiznahi eta nonahi zernahi eros dezakegula. Esan gabe iradokitzen digute horrela zoriontsuago-edo biziko garela.

Gero eta arruntagoa da festa egunetan jai ez egitea garai batean festak gordetzea ohikoa zuten sektoreek. Ordutegien liberalizazioaren alde daudenek diote lanegunak eta festak berdinduta kontsumitzaileok irabazten dugula

Proposamen tranpatia iruditzen zait, eta ameskeria —baita erosketetan murgilduta pozik ibiltzen direnentzat ere—, are gehiago krisian murgilduta gauden honetan. Baina, batez ere, arriskugarria deritzot gure kontsumitzaile-apetak beste edozeren gainetik jartzeari: kontsumitzaile bezala zertxobait irabazita ere galtzaile ateratzen gara herritar gisara. ■



DANI BLANCO



Edu
Zelaieta



IDAZLEA

Hausturatik

HAUSTURATIK ari natzaizue. Eta hausturaz. Zenbait agintarik erdeinatu ohi duten haustura sozialaz, eta paradoxikoki, agintari batzuek elikatutako haustura sozialetik. Izan ere, ez dira gaztainak bakarrik aritu zartaka gurean udazkenean; giroa franko berotua da Gasteizko bazterretan, dirulaguntzen banaketa dela eta.

Hausturatik ari natzaizue. Eta hausturaz. Gasteiztarrek sortutako bi plataforma ditugu: *Gora Gasteiz* eta *Ayudas más justas*. Pentsatzekoa da lehenak sinpatia handiagoa eragingo duela ARGIAko irakurle gehientsuen artean. Bigarrenaren atzean

Javier Maroto dugu, hausturari arnasa ematen dion hurrengo hauteskundeetarako hautagai nekaezina.

Hausturatik ari natzaizue. Eta hausturaz. Nago afera hau izango dela mahaiaren bueltan Gabonetan, Gasteizko etxe ugarietan. Gero eta gehiago gaiztotzen ari den polemika oparitu nahi izan digu alkateak aurrean. Alde horretatik ere bi egoera aurreikusten hasia naiz: gaia kontzienteki saihestuko duten familiak eta Gabonetako liskar antologikoak izateko bidean jarriko direnak. Denen partez, bizikidetzaz on. ■



argia 2015eko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

Historia gaiak

Txistekak

Hitzokeiak

Esaldi esanguratsuak

Bertsoak

Etixerako gomendioak

Zientzia

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Argiako eskaintza bereziak



EGURREZKO
TAULA
mahai gainekoa

50€

EGUTEGIA
opari



EGURREZKO
TAULA
hormakoa

50€

EGUTEGIA
opari

EGUTEGIA



9€

BURNIZKO EUSKARRIA

5€

ESKAERAK

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

© 943 37 15 45

ARANTXA URRETABIZKAIA

«Lanean ari naizenean ez dut disfrutatzen, baina hau idazten gustura sentitu naiz»

Garai bateko kronika egin du Arantxa Urretabizkaia *Zuri-beltzeko argazkiak* (Pamiela, 2014) liburuan. Oroitzapen zenbait izan ditu abiapuntu, eta “oroitzapenak gereziak bezala datoz: bat hartu, eta ondoan dituzu beste batzuk segidan”. Ez da, halarik ere, lan erabat zehatza, gauza gehiago konta zezakeen, baina “hau da! Nahikoa!”, esan eta puntua jarri zion testuari: kronika egin digu, literaturatik, norberarenetik, barrura begiratzuz.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Gurasoen alaba zara...

Ez didate inoiz esan ez aitaren iguala ez amaren berdina naizenik, baina urteak dira, behin, ispilura begiratu eta amaren aurpegia ikusi nuen: “Laletxe! Ama! Horixe bakarrik falta zitzaidan!” Baina, bai, uste dut gurasoen arteko nahasketa naizela: aitaren euskal zaletasuna daukat, amaren patxada... Gure umea jaio zenean, osasun gorabeherak izan nituen, eta hiru aste pasa egin genuen ospitalean. Sendatu, eta etxerakoan, erizainak esan zigun gure amari eta bioi: “Ume lasaia da, baina jenioa du!”. Eta, orain, hogeita lau urte igaro direnean, ez nuen gure semearen deskribapen hoberik egingo. Bada, amak esan zidan orduan: “Jenioa duela? Hobe! Ez zu eta ni bezala, inork ez digu kasurik egiten, ez garelako haserretzen!”.

Zuri-beltzeko argazkiak, sarrerakoan: “Kontatu nahi dudanak 1947an du hasiera eta 1960aren inguruan bukaera (...) Kontakizunaren mamia nire haurtzaroa da, baina ez da hori kontatu nahi dudana”. Zer da, hortaz, kontatu nahi duzuna, zer duzu kontatu nahi ez duzuna?

Kontatu nahi ez dudana: gure familiaren intimitateak. Zilegi iruditzen zait nork bere familiako barruak kontatzea. Nik gustura irakurriko nituzke. Baina intimitateak ez dira norberarenak bakarrik, besterenak ere badiara... Ni oso intuitiboa naiz, iruditzen zaidana egiten dut. Gero datoz lanak, egin dudana interpretatu behar izaten dudanean. Orain-

“Hau ez da memoria liburua. Gauza batzuk ez ditut kontatu nahi, eta ez ditut kontatuko”

txe, neure buruari esaten diot garai hartako kronika bat egiten dudala, oroitzapenetan oinarritua. Baina *Zuri-beltzeko*... ez da memoria liburua. Gauza batzuk ez ditut kontatu nahi, eta ez ditut kontatuko, sarreran esaten dudanez.

Ezinago argi, garbi eta klar...

Are gehiago, orain dela urtebete edo, bertso emanaldi bat egitea gertatu zitzaidan Andoni Egaña eta Uxue Alberdirekin. Nik testu bat irakurri, eta haiek bertsoak egiten zituzten haren gainean. Ahizpa etorri zen emanaldira eta, hasi baino lehen, esan nion: “Mari, agian ez zaizu gustatuko!”. Liburu honetako pasarte bat irakurri nuen, izeba Pakitari zegokiona. Ez zen, beraz, bakarrik niri zegokion bizitza. Eta Marik: “Zer, disparteak esan behar dituzu?”. Kar, kar... “Bai, disparteak esan behar ditut!”. Saioa bukatu eta Marik: “Oso polita, ez duzu disparaterik bota!”. “Ez, baina gu esaten dudanean, zeu ere barruan zaude!”. Errespetu handia diot horri.

Errespetu bera ikusten duzu inguruan, gizar-tean?

Ez, baina ez dut horretaz juiziorik egiten. Norberak jartzen du muga, nahi duen lekuan.

Zuk ez duzu dena delako muga gainditu nahi.

Ez, baina ez dakit zergatik. Agian, horrelakoa naiz...



Martekoa

"Ahal izan dudana egin dut. Ez dago gaizki! Orain dela gutxi esan nion ahizpari: 'Nola demontre libratu gara kaka hartatik?'. Nire adineko jende pila han da oraindik!... Duela urte batzuk, garai bateko lagunak ikusi nituen, nirekin batera saskibaloia egin zutenak. Elkartu ginen, eta ni harrituta zer gauza esaten zituzten. Etxera etorri, eta esan nion ahizpari: 'Martetik nator!'. Eta berak: 'Ea noiz sartzen zaizun buruan, Marteko bakarra zeu zarela!'".
Miopea naiz, eta bizitzarekiko miopia ere garatu dudala uste dut: egin behar dudana egiten dut, inora begiratu gabe".

Zu, izan, zintzoetan zintzoena zara, liburuan irakurri dugunez...

Nintzen, nintzen... Superletxeko zintzoa nintzen. Ezin zintzoagoa izan. Orain ere zintzoa naiz, baina ez ditut ikasitako guztiak errespetatzen. Ezta hurrik eman ere! Gurasoek ez dute inolako erantzukizunik ni naizen honetan. Ez zait gustatzen inork esatea: "Jakina, horrela hezi gintuzten!". Ondo da, hezi, hemezortzi urte arte! Handik aurrera zertan eman dugu bizitza? Erantzukizuna, behin adin batez gero, ez da gurasoena, norberarena da. Askotan entzuten da: "Bai, baina eskolan buruan sartu zieten...". Niri ere galantak sartu zizkidaten, baina honezkeror ez dit balio, oroitzapen hutsa da. Neu naiz neure bizitzaren erantzule, ez beste inor. Neurea da erantzukizuna.

Lanbide "liberala" izateak, laneko errutina estutik kanpo bizi izateak lagundu dizu askok ez bezala pentsatzen munduaz?

Baietz uste dut. Alde batera eta bestera begiratzen hasi eta denek dute nik baino erretiro hobia, askoz hobia, baina badakit egokituko zaidan erretiro eskasa askatasunaren prezioa dela. Eta onartzen dut! Gazteak ikusten ditut, ikasketak bukatu eta lana aurkitu, etorkizuna segurtatu nahian, langile finko izateko amorratzen... "Ondo da, zeure aukera duzu. Ni prest nago askatasunaren prezioa onartzeke". Ez naiz kexatuko.

Solasaldia egin berria duzu Gasteizen, Eider Rodriguezekin batera. Hantxe jardun zenuen, oraingo gazteak edo zure garaikoak okerrago bizi ote diren...

Udarako Zientziatxokoak EUREKAN!

- 3 - 10 urte ■ Jangela zerbitzua
- 8:30 - 15:30 ■ 11 txanda



www.eurekamuseoa.es | 943 012 478



Ni baino okerrago ez dira biziko. Iruditzen zait pertsonok badugula joera iragana idealizatzeko, iraganean paradisuan ginela pentsatzeko. Esaten da, adibidez: “Garai bateko balioak berreskuratu behar dira”. “Zer balore, ordea?”. Nik liburuan erakusten ditudanak? Balio horiek ez dira berreskuratu behar: iraganean ez zen paradisurik izan. Gure ametsa da hori.

“Ni baino okerrago ez dira biziko”. Zu, hasteko, aitak lehenengo aldiz besoetan hartu zintue-nean, kartzelan zegoen!

Gudaria izan zen aita, gerra denboran. Zazpi urte baino gehiago egon zen kartzelan, gerra eta gero. Heriotza zigorra jaso zuen, baina pixkanaka-pixkanaka irten zen handik ere. Kartzelatik irten eta ezkondu egin zen, hilabete gutxira. Laster etorri zen lehenengo alaba, nire ahizpa zaharrena. Bigarrena, ni, 1947an, aita kartzelan zela, erresistentziaren saltsaren batean sartuta zegoelako, nonbait. Jaio nintzen, beraz, eta hilabeteetara, kartzela zaintzen zuen mojetako batek esan zion gure amari ni Mesedetako Amaren egunean, irailaren 24an —nik ia hiru hilabete nituen ordurako—, eramaten baninduen, berak sartuko ninduela barrura, aitak ikus nintzan. Orain “Francoren garaian bezala” esaten da askotan, baina uste dut neurtu egin behar dela hori esaten denean, jakin egin behar dela Francoren garaia zer izan zen, alegia.

**Bi atal ere baditu zure liburuak. Batean, “Notario batek egiaztatuko lukeena” atalean, “Pertsonaia nagusiak” aurkezten dizkiguzu. Beste-
tean, “Postalak” ditugu. Horietako batean, hantxe Franco ageri...**

Franco... Gure familia antifrankista zen, baina sekretupean gorde behar zen. Agian, horrek ilunpean bizitzen, klandestinitatean bizitzen erakutsi dit, gauza batzuk disimulan egiten, zenbait gauza ezin direla esaten... Idaztea bera, lan klandestinoan izan da niretzat oraintsu arte. Lehenengo lana ere inori ezer esan gabe bidali nuen sariketa batera... Kostatu zait, gero!, klandestinitate hori gainditzeko. Uste dut azkeneko hamarraldian gainditu dudala, hasi naizela idatzitakoa jende aurrean irakurtzen. Zerbait idazten dudanean, eta irakurleak hura irakurtzen duenean, ni etxeko gotorlekuan nago, salbu! “Hona ez dira sartuko!”.

Aitaz jardun duzu. Zer diozu amaz. Etxetik kanpo lanean jardun zuen, bulego materiala saltzen zen dendan...

Etxekoandre hutsak ez dakit noiz izan diren gure familiak: amona Euxebik Donostiako orfeoiaren egoitza zaintzen zuen; etxea zuen ordainetan. Amona Antxonik aitonari laguntzen zion sutegian, tira sokari alde batetik, eta

Argazkia

“Argazki bat bakarra jarri dut liburuan. Pamiela argitaletxeak eskaini zidan, argazkiak jartzea, baina ez dut nahi izan. Argazki bakar hori nire jaiotetxearena da. Liburu barruan agertzen da, eta jarri dut, jendeak ikus dezan zein alkurniatakoa naizen ni! Kar, kar... Etxea ikusten duzunean konturatuko zara. Alkurnia! Zuri-beltzeko argazkiak da liburuaren izenburua, eta iruditzen zait badela sasoi bat definitzeko metafora: zuri-beltza, eta ez kolorea, garaia-ri dagokiona”.

hauspoari, bestetik. Gure ama ez zen etxekoandre hutsa izan, bizi osoan jardun zuen lanean, eta neuk esan behar izan nion, halako batean, nahiko lan egina zuela, uzteko lanari. Amari ez zitzaion burutik pasatzen etxetik kanpoko lana egin gabe bizitzerik! Etxekoandre hutsaren kontu hori, uste dut, historikoki, oso laburra dela. Frankismoak ekarri zuen, galtzaileen onespenez, eta bukatzera dator aldi hori ere, eta ez ideologiari edo feminismoari esker, hipotekari esker baizik: hurrengo bi belaunaldiak ezingo dute bizi soldata bakarrarekin, bi beharko dituzte.

Gurasoe-kin batera, oso presentzia nabarmena zure liburuan izeba Pakitak...

Bai aita eta bai ama, etxetik kanpora lanean, izeba zen gurekin etxean zegoena beti. Zorrotza zen! Eta negar egiteko prest edozein momentutan. *Teatrera* hutsa zen! Beti gurekin, beti etxean hura! Ez zen irteten, ez zuen lagunik, gu beste inor ez zuen!

Liburuan diozunez, gerra aurreko eta gerra ondoko izeba, bi pertsona ezberdin ziren!

Bai, horrela kontatzen ziguten. Bi lagun ziren, Gorri ezizeneko bat, eta gure izeba. Ama eta biok joan izan ginen Gorri bisitatzera ere, baina izeba ez. Kanpoko mundutik ezer jakin nahi ez zuela bizi zen. Behin, edadetua zen ordurako, zinemara eraman nuen. Gaztea izan ni! Igandea zen, eta zinemara baino lehen, kafetegira eraman nuen. Ez zuen tabernara nahi izan, eta kafetegira ere ia-ia arrastaka eraman behar izan nuen. James Bonden filma zen. Haren sustoak! “Oso ondo, baina zinera gehiago ez!”, esan zidan. Kar, kar...

Gerrak izebaren izaerari egin zion kaltea...

Trauma bat izan zen. Horixe zen liburuan kontatu nahi nuen gauzetako bat: trauma, gizonentzako trauma, baina, batez ere, emakumeentzat. Gerrak ez ditu, bakarrik, hildakoak biktima. Gerra ondoren diktadura datorrenean, denak dira biktima. Zein ausartzen da ezertara? Franco bizi zela, nobio bat nuen, soldadutzan. Hark cetme baten kargadorea ekarri zidan, lau edo bost bat bala hatzaren luzerakoak. Liburu artean jarriak neuzkan. Behin, salbuespen egoera Gipuzkoan, izebak bala haiek ikusi eta: “Faborez, kendu arma horiek hemendik!”. “Arma? Zein arma, gero?”. Kar, kar... “Hau ez da harrika botatzen!”. Beldurrak bizi zen hura, eta oso kontuan izan dut beldurraren kontu hori, gazteak hezterakoan. Alegia, nire beldurrak haiei ez transmititzen: “Zuri ematen dizu beldurra, ez niri!”, esaten genion. Gurasook askotan dugu arrisku hori, gure beldurrak gure menpean bizi direnei transmititzea.



Ahizparen eta anaiaren, edo nebaren, berri axal liburuan...

Ahizpak irakurria du liburua, eta esan zidan: “Gauza batzuk ez ditut zuk bezala gogoratzen, baina gauzak zuk idatzi duzun moduan izatea, edo nik gogoratzen ditudan moduan... bion arteko nahasketa bat izango da, seguruenera”. Ahizparen berri labur, eta nebarena ere gutxi, bai. Ez dut besteren bizitzan sartu nahi, nahiko lan daukat neure buruarekin.

Bigarren partean, postaletan, eliza, arropa, gorputza, ikatza... dituzu hizpide, eta, horien ondoran, baita euskara ere. Hor da euskararen mina...

Autoak ez aurrera ez atzera bide bazterrean uzten zaituenean, garabia dakarrena euskalduna bada, hobeto! Ertzainak gerarazten bazaituzte eta euskaraz hitz egiten badizute, hobeto! Niretzat, hobeto. Beste era batera hartzen dut arnasa... Gure gaztaroan, euskararen kontua oso gauza pisua zen. Gaztaroan, euskara hilzorian zegoen beti. Orain ere entzuten da hori, diskurtso agoniko hori. “Bi-hiru belaunalditan

euskara akabo!”, esaten dute batzuek oraindik, baina ez da diskurtso nagusia... Nik, orain, atzera begiratu eta uste dut bidea egin dugula. Sekulakoa! Sekula santan ez nuke amestuko —ez nik, ez nire ingurukoek—, gaur eguneko egoerara helduko ginenik. Bestalde, nik ahal dudana egin dut. Gero geroakoak!

Eta eliza? Nola sinetsarazi oraingo irakurle askori orduko mundua, liburuan kontatzen duzuna?

Elizaren diskurtsoaren aurrean, esate baterako, babesgabe bizi ginen. Diskurtso politikoaren aurrean, aldiz, ez ginen babesgabe, bagenuen heldulekurik. Etxean ez zen askorik esaten, baina aitak garbi utzi zigun zein zen gure jarra, zer ginen gu. “Zer gara gu, nor gara gu, euzkotarrak gara gu!”, zioen. Eta Franco, ez! Aitak esaten zuen, amak esaten zuen, izebak esaten zuen: “Franco, ez!”. Argi eta garbi genekien, nahiz eta dotrinarik ez ziguten sartu. Lastima, nik orain elkarrizketa on bat egingo nioke aitari! Gazteegia nintzen ni orduan!... Elizaren diskurtsoaren aurrean, aldiz, babesgabe ginen.

baga-biga
sendotasuna
musikan

MANAGEMENT: (+34) 618 072 076

baga-biga musika ideiak
tel: 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

korrontzi	ets	txapelpunk	hesian	doctor deseo
vendetta	emon	xaike	eskean kristo	



“Zerbait idazten dudanean, eta irakurleak hura irakurtzen duenean, ni etxeko gotorlekuan nago, salbu!”.

Etxekoek ere bat egiten zuten diskurtso harekin! Ez zegoen kontraesanik fraideek esaten zutena eta amak edo izebak esaten zutenaren artean. Kontraesanik ez! Bat egiten zuten elizarekin, Ekintza Katolikoarekin eta gainerakoekin!

Kazetari eta idazle zaitugu. Literaturaren bide estuaren bidetik jo izan duzu orain artean, eleberriak idatziz. Oraingoan, bes-telakoa da erregistroa...

Bi gauza kontatu nahi nituen liburu honetan. Batetik, gerrak emakumeei ekarri zien trauma, eta, bestetik, “Gure haurrak gu baino okerrago biziko dira” dena delako horri erantzun nahi nion: “Ez dira ni baino okerrago biziko”. Bi hari horiek nituen, eta biak lotzeko zeharbideak aurkitzen saiatu nintzen. Fikziotik jo, aske ibili... Liburu honetan egin dudana ez nuen sekula egin, eta, berehala, doinua aurkitu nuela iruditu zitzaiz-

**“Idaztea
lan klandestinoa
izan da niretzat
oraintsu arte”**


dan. Oso modu intuitiboan, beti. *3 Mariak* eta gero esan nion neure buruari: “Ez dela atzera begira bizi behar esaten duzu, horixe duzu dotrina, eta atzera begira jarri zara!”. Baina eroso sentitu naiz horrela idazten. Oraingo bide hau aukeratzeko, “eta zergatik ez?”, esan nion neure buruari. Hala ere, esan dizut, zaharrok ez gaude, bakarrik, iragana kontatzeko. Ezin esan nezake nondik jarraituko dudana, baina hau idazten gustura sentitu naizela, bai. Hala ere, esan behar dut lanean ari naizenean ez dudala disfrutatzeko. Baina niretzat baliagarri den zerbait lortu dudala iruditzen bazait, horrek satisfakzio handia ematen dit. Eta norbaitek nire lana irakurri eta hitz ederren bat esaten badit, poxa ematen dit, eta pox hori ez dit beste ezerk ematen.

Baina liburua argitaratzea arriskua da, agerian jartzen zara, batak hau esan duela, besteak hura. Saltsa horretan sartu ginen, eta ez dut irteteko asmorik, indarra daukadan bitartean jarraituko dut.

Jo dezagun bukaera: “Hamahiru urte nituela, hamalau betetzeko zorian, bukatu nuen eskola. Ordurako ez genuen goizetan *Cara al sol* abesten. Heldua zen zorioneko ofizioa ikasteko ordua”.

Haurtzaroari begiratu nahi nion liburu honetan. Bestalde, nerabezarorik ba al zen, bada, orduan? Gaztelaniaz ere, “adolescencia”, ez zen ezer gu adin horretara ailegatu ginenean. Orain muntatu da adolezentiaren zera izugarri hori. Guk ez genekien adolezente ginenik ere! Dena dela, haurtzaroan bukatu nahi nuen, guk eskola bukatu eta lanerako bidean hasten ginen garaian. ■





Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Film bat baloratzeko gakoak

Zeri erreparatu pelikula bat ikusten dugunean? Horretan laguntzeko, mahai-ingurua antolatu zuten pasa berri den Lekeitioko Euskal Zine Bileran. Begoña del Teso kritikariak eta Aitor Arregi eta Ane Muñoz zinegileek hainbat gako eman zizkiguten.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Aurreikuspenek nola eragiten dute film bat ikustera goazenean? Aurretik irakurritako zine kritikak adibidez zein garrantzi izan behar luke?

A. Arregi: Kritikak eragina du, jakina. Gaur egun, inozentzia galdu dugu pelikula baten aurrean: trailerrak, kritikak... Informazioa ugaria da interneten eta zaila da pelikula bat ikustera joatea ezer jakin gabe, zaila da aurreiritzirik ez egitea. Iristen zaiguna filtratzen jakin beharko genuke, baina egia da pelikula batek bost izar izateak baldintzatu egiten zaituela.

B. del Teso: Egunkariak kritikariok jarri diguten zigor handia dira izarrak. Jende askok dena egina nahi du, eta hein batean normala da, jakin nahi duelako sarreragatik 8 euro ordaintzea merezi duen ala ez. Baina zeri jartzen dizkiozu hiru izar? Zer da "Interesgarria"? Bat, bi izar kaskarrari edo maisulanari bost jartzea errazagoa da; hiru izar horiek dira zailenak eta badakizu askotan pelikula horrek aretoetan izango duen arrakasta bal-

dintzatzen ari zarela. Aktore interesgarriak dituelako emango dizkiot hiru izar? Zalaparta sortu duelako? Txikia izanik salbatu nahi dudalako?... Eta bost izar jartzen dituzunean ere kontuan hartzen duzu jende bati agian ez zaiola batere gustatuko; alegia, bost izar horiek nireak dira, eta kritikan argitzen saiatzen zara: bost izar jarri ditut baina kontuz ibili, ez bazaizue gustatzen Ukrainako zinema, edo halako zuzendaria, edo bertsio originala... ez joan, eta izar bat jarri dudanean berdin, nire ustez ez du zinematografikoki merezi, baina bai beharbada ahaleginagatik, edo sortu duen gatazkagatik... Arazoa da jendeak kritika irakurri beharrean sarri izartxo horiei baino ez diela erreparatzen eta gauza beldurgarria eta hilgarria dira izarrak.

Ezker-eskuin:
Begoña del Teso,
Ane Muñoz eta
Aitor Arregi,
Lekeitioko Euskal
Zine Bileran.

A. Arregi: Bai, behartzen zaituztelako pelikula bat neurtzera eta zelan egiten da hori, zelan neurtu neurtezina dena? Ez dago mundu guztiari ikaragarria irudituko zaion



pelikularik, eta beraz ezin da kategorikoa izan. Paradoxa horretan bizi gara: alde batetik filmak neurtzea nahi dugu, baina gero sarri ez gaude ados jarritako izar kopuruarekin eta kexu gara. Niretzat, zuzendaria eta aktoreak bermea dira; David Fincher-ekin konektatu egiten dut adibidez, eta Leonardo DiCapriok ere bermea ematen dit, film onetan parte hartu ohi duelako.

A. Muñoz: Nik lehen kritikak irakurtzen nituen pelikula ikustera joan aurretik, baina baldintzatuta joaten nintzela konturatu nintzen eta amorrua ematen zidan zinemara garbi ez joateak. Jendeak ere, filma ikusi ostean “gehiago espero nuen” esaten dizu, beti konparatuz, zer iruditu zaion esan beharrean. Gaur egun, kritikak pelikula ikusi ondoren irakurtzen ditut eta aurretik kontuan hartzen dudana irizpide nagusietakoa da filma jatorrizko bertsioan ikusteko aukera.

B. del Teso: Nik probokazioa bilatzen dut pelikuletan. Ezin ditut jasan ikusi gabe alde aurretik ezagutzen ditudan pelikulak. Probokatuko nau pelikulak? Kritikari eta gizaki gisa zalantzan jarriko nau?... Sentsazio horien bila ibiltzen naiz.

Zinemaz dugun ezagutzak eta erreferentziak pelikula hobeto balioztatzen lagun diezagukete. Nola landu dezakegu begirada ikus-entzuleok?

A. Arregi: Ikusle moduan entretenitu nazala, hori da pelikula bati eskatzen diodan lehenengo gauza, harrapa nazala eta trama jarraitzeko eta istorioa nora doan jakiteko gogoz mantendu nazala. Pelikula nora doan eta nora naraman ez jakitea gustuko dut, jokoan sartzen naiz eta ondoren saia naiteke pelikulak dituen beste geruzak eta mezuak ikusten, baina bortxatu barik. Ez naiz oso ona sinbologiak eta mezu ezkutuak hitzez adierazten; gustatu zait eta hurrengo ordu eta egunetan pelikula buruan izango dut, eta hori sentsazio ederra da. Abentura generoak piztu zidan niri zinezaletasuna eta zinemaren munduan nabil besteak beste *Indiana Jones*-engatik. Akzio eta gidoi izugarriak ditu trilogiak, askotan ikusi dut eta harrapatu egiten nau. Ez dakit zenbat geruza dituen, beste ikuspuntu batzuetatik begiratu behar ote den... Dakidana da oso gustuko dudala. Nerabearoan *The Man Who Would Be King* ikusi eta honek ere harrapatu egin ninduen. Beste mota bateko abentura filma da, pausa-

tuagoa... eta ikusten duzu atzean zerbait gehiago ere baduela. Gerora, *Lawrence of Arabia* deskubritu nuen, abenturazkoa baita ere eta makina bat geruza, metafora eta abar dituen. Jakin badakit *Lawrence*-k *Indiana Jones*-ek baino sakontasun handiagoa duela, baina ez eskatu horien artean erabakitzeke, behin eta berriz ikusi ditzaket hirurak, eta horrek esan nahi du zerbait daukatela, baina ez dakit sekretua zein den. Ikusle bakoitzak bere

buruari egin behar dio kasu: gustatu zait? Bada hori asko da. Barre egin baduzu, ez gutxietsi zure iritzia “ofizialki” pelikula txarra dela esan dutelako.

B. del Teso: Bakoitzak nahi eta ahal duen moduan heltzen dio zinemari, pelikula bat ikusi eta ez duzu zertan irakurketa sako- na egin. Oso ezberdina da nola heldu ginen gu zinemara eta nola heltzen diren orain; ume

eta gazte askorentzat ordenagailuan ikusi dezaket hori da zinema; erreferentziak, edadeak, gustuak, bizimodu aldaketa... kontuan izan behar dira. Orain 80ko hamarkadako zinema dago modan, hamarkada horretan gazteak ziren orain zinemaldietako antolatzaile eta kritikari bihurtu direlako, eta euren erreferentziak Gooniak, Gremlinak eta halakoak dira.

A. Muñoz: Institutuan Charles Chaplinen *Modern Times* jarri ziguten eta barre asko egin nuen. Bigarrenaz ikusi nuenean, gauza berriak antzeman nituen, modernitateari egindako kritika, makinek alienatutako gizakiak, errealitate ekonomiko eta sozial gogorra... Pelikula dibertigarria izateaz gain ira-

kurketa gehiago zituela konturatu nintzen eta istorioaz harago harrapatzen ninduten beste faktore batzuetan erreparatzen hasi nintzen. Zinema asko ikustearen poderioz, azalean ikusten dena baino askoz gehiago egon daitekeela konturatu nintzen. Ni harrapatzen naute gertutasuna daukaten istorioek, ez niri gertatu zaidako,

nigan enpatia sortzeko gai direlako bai- zik. Zientzia fikzioa ikustera banoa, ikuskizunaz, efektuez... gozatzeri noa, baina istorio txikiak eta gizatiarrak nahiago ditut.

A. Arregi: Zientzia fikzioak, dena den, gauza oso gertukoez eta gizatiarrez hitz egiten digu sarri, baina gure errealitatetik ateratzen da eta kanpotik kontatzea batzuetan sanoagoa da, gure gizarteko hainbat kontuz gogoetatzeko.

B. del Teso: Hainbatetan jendea tratatuta geratzen da, pelikulak ez duelako hau edo bestea azaldu. Lasai, disfrutatu eta ahaztu

“Arazoa da jendeak kritika irakurri beharrean sarri izar kopuruari baino ez diola erreparatzen. Kritikariontzat zigor handia dira izarrak”

Begoña del Teso, zine kritikaria

“Zuzendari batzuek dena azaltzen diote ikusleari, puzzle osoa, eta niretzat politagoa da puzzlean hutsuneak daudenean, elipsiak...”

Aitor Arregi, zinegilea

zergatiak eta motiboak. Sorgindu bazaitu, edertasunaz gozatu eta ez kateatu.

A. Muñoz: Baina batzuetan ikusleak dena ulertu nahi du eta frustrazioa sortzen zaio. Utzi pelikulak eraman zaitzan... Niri filmak bakarrik ikustea gustatzen zait, eta aurrean bururik izan gabe.

B. del Teso: Baina pelikula batzuek ikusleagoa behar dute. *E.T.* Errege Egunean Astorian eta jendez inguratuta ikustea, adibidez, ahaztuko ez zaizun esperientzia da. Jendearen emozioa, sustoak... Berdin beldurrezko hainbat filmekin. Banpiroei buruzko *Twilight* sagak duen arrakasta ulertzeko, esaterako, kritikari bezala ona da jendez betetako aretoan ikustea, jarraitzaileei zer ematen dien jakiteko.

Hain justu, genero eta pelikula mota batzuk gutxietsita daude. Balorazioa eta exijentzia maila aldatzen dira, generoaren arabera?

A. Muñoz: Genero bakoitzaren barruan denetik aurki daiteke, helburuei, sakontasunari, antzezpenei... dagokienez. Daukadan egunaren eta aldaratearen arabera, film mota bat edo beste bat aukeratu dut, genero bat edo beste bat. Batzuetan ihesbide bat baino ez duzu bilatzen zineman.

A. Arregi: ETBn botatzen dituzten *western*-etan adibidez sekulako lanak daude eta harrigarria da zenbat gauza kontatzen dituzten 80 minututan, besteak beste ez dituztelako hainbeste minutu behar girotzeko eta testuinguruan kokatzeko. Genero guztietan aurki ditzakezu ezustekoak; musikalak berez arinagoak direla pentsatzen nuen lehen, baina begira *West Side Story*, *Cabaret*, *All That Jazz*, *Singin' in the Rain*...

B. del Teso: Zinema komertziala zaborrarekin alderatzen da sarri, baina komertzial izateko jaio zen zinema, ferietako atrakzio gisa.

Bi oinarri dituzte pelikulek: istorioa eta gidoia batetik, alderdi narratibo, formal, estetiko eta teknikoak bestetik. Montxo Armendarizek esana da istorio guztiak kontatuak daudela dagoeneko, istorioa kontatzeko modua eta zuzendariaren begirada direla aldatzen dena. Zuek zer ematen diozue garrantzia?

A. Arregi: “Zer” eta “nola” kontatu lotuta daude eta inportanteak dira biak. Ikus-entzunezkoak irudia mugimenduan du, baina zuzendari batzuek dena gidoiaren bidez kontatzen dute, dena azaltzen diote ikusleari,



Arregik abentura generoa du gustuko. *Indiana Jones*-en trilogia (irudian), *The Man Who Would Be King* eta *Lawrence of Arabia* abenturazkoak dira, geruza eta sakontasun maila oso ezberdinekoak, “baina ez eskatu horien artean erabakitzeke, behin eta berriz ikusi ditzaket, eta horrek esan nahi du zerbait daukatela, baina ez dakit sekretua zein den”.

puzzle osoa, eta niretzat politagoa da puzzlean hutsuneak daudenean, elipsiak... Informazioa iruditzen eta elkarrizketetan errepikatu beharrean, bi horien arteko jolasa bilatzen duten filmak nahiago ditut, iradokitzaileak direnak, “nola” horretan indarra jarri eta ikusleari lan pixka bat eskatzen diotenak, dena azaldu eta mezu kategorikoak ematen dituztenak baino.

Bi estilo dira: Kubrickek adibidez galderak planteatzen ditu bere pelikuletan eta Spielbergek erantzunak eman, eta Spielbergek arrakasta dauka, jende bat erosoago eta lasaiago sentitzen delako horrela.

B. del Teso: Unearen arabera batzuetan erantzunak nahi dituzulako eta beste batzuetan

berriz, galderak planteatzea. Niri ere, Aitorri bezala, gustatzen zait zuzendaria nitaz fio denean, eskutik eramaten nauenean baina dena xehe-xehe eman gabe, azkarra naizela dakielako. Egungo film ugaritan zuzendariak minutuak eta minutuak jaten ditu zuk aldeztetik bazenekiena azaltzeko.

A. Muñoz: Egilearen eta ikuslearen arteko konplizitate hori aberasgarriagoa iruditzen zait niri ere, eta Armendarizek dioenari helduz, zuzendariaren begirada oso garrantzitsua da. *Loreak* filma esaterako: istorioa mila modutara konta daiteke, eta zuzendariak egin duten modua iritsi egin zait, gertakariak eta pertsonaiak ulertzen saiatzeko ikusleari ahalegin txiki bat eskatzea, baina ahalegin atsegina, istorioaren partaide sentiaraztea. ■

“Batzuetan ikusleak dena ulertu nahi du eta frustrazioa sortzen zaio. Utzi pelikulak eraman zaitzan...”

Ane Muñoz, zinegilea



Ines Osinaga: «Ikurritzak berritu behar dira, eta barrikadak»

Joseba Sarrionandiak, Arrasateko Gose taldeak eta herri bereko Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artista plastikoek Gosariak izeneko kaxa berezia autoekoitzi dute. Gosek, irudikatzen ez genituen erregistro eta giroak landu ditu proiektu honetan. Ines Osinaga eta Iñaki Bengoarekin Sarrionandiarekin batera gauzatutako lanaren prozesuaz mintzatu gara.

| IKER BARANDIARAN |

Argazkiak: Dani Blanco

Goserik gabe bada iraultzarik? Goseak mugitzen du guztia?

Ines Osinaga: Gosea da iraultzak pizten dituen, bizirik gaudela gogoratzen diguna, motorra eta bidea. Erosotasunetik irten behar da lelo onak aurkitzeko.

Zuek kantu baterako eskaera egin eta disko baterako hitz sorta jaso bueltan. Nola ematen zaio pilotakada horri?

Iñaki Bengoa: Ez genuen ezezkoa jaso, “helduko da” esaten ziguten... eta justu disko laranja aurkeztu genuen egunean heldu zen Sarriren proposamena, disko oso bat egitekoa. Urtebete eman genuen erantzun aurretik. Nola egin pentsatzen aritu ginen, proiektuari, ideiari, hirugarren hanka asmatzeari. Ez genuen bakailao eta gitarra disko bat egin nahi Sarrionandiarekin, ezta disko-liburu soil bat ere. Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea artista plastikoei parte hartzeko proposamena luzatu genien eta lanaren kontzeptua aldatu zuten, kaxa bihurtuta.

I. Osinaga: Bi hauen eta Sarrionandiaren garaiko diskoen artelanak gogora ekartzea interesgarria iruditu zitzaigun. Buelta asko eman genizkion, baina azkenean topatu dugu bidea eta non elkartu: denona izango den zer-bait, baina bakoitzarena izateari utzi gabe.

Zer ikusi dio Sarrionandiak Goseri?

I.O.: Inork ez digu oraindik argitu, baina bere partetik hordagoa izan da, hain estandarra ez den talde gazteago bati halako proposamena egitea.

Eta zuek zergatik jo zenuten berengana kantu bat eskatzeko?

I.O.: Sarrizalea naiz. Idazlea gustatzen zaigu, baita errepresentatzen duen ikonoa ere. Hasieran bere figurak zama handia zuen, oso idealizatuta genuen eta errespetua ematen zigun. Baina hori burutik kendu genuenean, ideiak eta kantuak irteten hasi ziren. Sekulako oparia izan da berarekin lan egitea; gehien txunditu gaituena, hitzekin batera bidalitako azalpen-gutunak izan dira. Hasieran gauzak aldatzeko beldur ginen, baina gerora oso eztabaida aberatsak izan ditugu.

Beti izan zarete erronkazale eta berrasmatzearen aldekoak. Lan hau da orain arteko jauzi handiena?

I.B.: Erronka handiena lehen diskoa izan zen. Euskal Herrian hiru lagun elektronikarekin eta trikiarekin rock kontzertutan jotzen hastea...

I.O.: Hirugarren diskoa ere, gorria, mugarrria izan zen; autoekoizpenaren aldeko apustua egin genuen lehen aldiz. Berrasmatzea ezinbestekoa da motibatzeko.

Eta zer izan da zailena?

I.O.: Delegatzea eta onartzea guztia ez zegoela gure kontrolpean. Baina emaitzarekin oso pozik gelditu gara.

Sar gaitezen kutxa barrura...Txalupa kantuak itsas marinelen ematen du, habanera estilokoa da.

I.O.: Oso abesti berezia da. Sarrionandiak oso argi zeukan zer abestu nahi zion Euskal Herriari. Compas bat bidali zigun, zehaztasun asko zituena. Abesti horretan guk obsesiboki bilatu dugu berak buruan zeukana. *Txalupa* kantuan mikrofonoa bere tamainan jarri



ERDIKO KAIERA

guztia esaten duelako. Sarrionandiak abesti osoan esaten dizu, guztia irakurrita.

I.O.: Hori dela-eta, leloekin lotuta negozioziazio handiak egin behar izan ditugu. Gosen oso lelozaleak gara, guretzat leloa abestiaren izenburua da eta Sarrik beste modu batean idazten du.

Erruak adiera asko dauzka eta gure herriaren izaeraren marka ere bada...

I.B.: Kantu hori heldu ahala erabaki genuen diskoa zabalduko zuela. Printzipioen aitoren bat da.

I.O.: Ikaragarria da Sarriren ahotik entzutea "erru kolektiboari" buruzko halako hausnarketa. Oso zintzoa eta oso ausarta da; erbestean dagoen batengandik helduta, are eta gehiago.

Gainera, askoz eraikitzaileagoa iruditzen zait errua erabiltzea erantzukizuna baino.

Anaren hiri arraroa prostituzioari eta gaur egungo askoren egoerari idatzitako kantu soil eta ederra da, paradoxikoki hit bihur daitekeena. Mezu gordinak, melodia eta lelo itsaskorrek barneratzea gustatzen zaizue.

I.O.: Guztiok gara Ana! Eta, bai, beti pentsatu dugu modu eraginkorra dela nahi dugun mezua bestelako belarrietara heltzeko.

Banku atrakatzailleak. Bankuak, aspalditik, erreskate garaien aurretik ere, zuen jomuga izan dira.

I.O.: Bai, etsaiak dira. Dena dela, Sarriri esan beharko diogu hemen jada ez dagoela aurrezki kutxarik.

Harrituta gelditu naiz Fuente anaien etorriarekin; ez nituen ezagutzen. Ikerlari zorrotza da Sarri, pertsonak eta gertaerak bere lekuan jarri nahi izaten dituen...

I.B.: Bai, zalantzarik gabe. Zortziko baten partitura eskuz idatzia bidali zigun, eta aipatu

dugu eta aurrera. Amari kantu hori asko gustatu zaio eta ez du Gose gustuko.

Kaxa ixten duen *Belengo albistiek* ikaragarria da. Picassoren *Guernica* eta Enrique Morenteren *Omega* ekartzen dizkit gogora...

I.B.: Badu zerbait. Iñigo Arregi artista grafiakoak esan zuen kantu horrek zutik harrapatzen bazaitu, jesarri egiten zaituela.

I.O.: Pozten naiz *Guernica* gogoarazi badizu. Abesti horren ideia da Gernikan Gabonetan Jesusen jaiotza abesten dela; eta irudikatu dugu nola abestuko duten han 2000 urte barru Gazan orain jaio eta hil den ume baten istorioa.

Gustatu zait bere sinpletasunean katua hitza hartu, eta asperduran, bat-batean sor daitekeen hiri-pasarteala hala irudikatzea. Zer ikasi duzue Sarriengandik hitzen sorkuntzari dagokionez?

I.B.: Oso hitz bisualak idazten ditu, gidoi modukoak. Sintesi gaitasun handia du, baina ez Evaristoren parekoa, horrek bi esalditan

Ines Osinaga eta Iñaki Bengoa:
"Sarrionandiak oso hitz bisualak idazten ditu, gidoiak modukoak".



**44. BINAKAKO ERREMONTE
TXAPELKETA NAGUSIA
FINALA 2014**

ABENDUAREN 20 Galarreta-Jai Alai
pilotalekuan

**28 URTE
EDO AZPITIK
10 €**

galarreta
JAI-ALAI
ORIAMENDI 2010

www.oriamendi2010.com
info@oriamendi2010.com

ERDIKO KAIERA •

zigun Oskorrik bertsioa egin bazion ere, berak beste bertsio bat egin nahi ziola.

Orain dantza da gure barrikada-k izan beharko luke egungo leloa, iraganeko Jaiak bai, borroka ere bai eta antzekoak ordezkatzeko lituzkeen? Bada garaia musika taldeek bestelako mezuak islatzeko, ezta?

I.O.: Argi dago baietz. Esaldi horrekin eztabaida izan genuen Sarrirekin. Hasieran idatzi bazuen ere, gerora kendu zuen. Berari iruditzen zitzaion agian lekuz kanpo zegoela; eta guk ezetz, ezetz. Oso gurea da esaldi hori, baina berak bota zuen. Esaldi horrekin kamisetak eta pankartak egin beharko genituzke.

Musika erreferente da askorentzat, eta konsignetako asko 80ko hamarkadakoak dira...

I.B.: 80ko hamarkadan lortutakoa, irrati libreak, fantzineak, telebistako musika saioak... Internetek ordezkatzeko zituela uste genuen, baina ez da hala, eta orain ez daukagu ezer. Inoiz baino sormen handiagoa dago, baina ez dago erakuslehorik. Laster, euskaraz abesten dugun taldeak desagertzeaz egongo gara.

I.O.: Musika egiten dugunok badugu zelanbait aztoratzaileak izateko erantzukizuna, are gehiago bizi dugun garaian. Ikurritzak berriro behar dira, bai ala bai, eta barrikadak.

Nolakoa izan da sortze prozesua?

I.B.: Hasieran hitzak jaso eta guk musikatu, baina halako batean alderantziz egitea iradoki zigun.

Zer-nolako lana da, besteak beste, cumbia hain ondo barneratzea?

I.B.: Las Dos D taldekoek esaten ziguten hori ez dela son-a. Instrumentu horien soinua hartzen dugu, baina ez erritmoa.

I.O.: Era berean, guk soinua erabiltzen dugu, baina ez dugu fandangorik jotzen.

Nola hartu dute Hiri Arraroan hain lan berezi eta formatu anitzekoa prezio merkean jartzea, diskoak saltzen ez diren garaitan?

I.O.: Lan hau autoekoiztea erronka izan da, eta jende guztiarentzat eskuragarri jartzea, helburua. Formatu handiago eta garestiagoan egin genezakeen, baina ez genuen nahi.

I.B.: Autoekoiztea ez da militantzia. Diskoetxeek taldeen duintasuna bermatuko balute, beraiekin lan egin ahal izango genuke. Gaur egungoa lotsagarria da.

Hitz egidazue diskoa nahastu duen Tim Lathani buruz.

I.B.: Jonan Ordorikak askotan eskaini zigun. Izugarritzko curriculum du, baina berarekin



Ines Osinaga:
"Hasieran Sarrionandiaren figurak zama handia zuen, oso idealizatuta genuen eta errespetua ematen zigun. Baina hori burutik kendu genuenean ideiak eta kantuek irteten hasi ziren".

lan egitea oso erraza izan da. Tim Lathan, pentsa, ez ginen New Yorkera bera lan egiten ikustera ere joan. Abesti bakoitzaren egoera animikoa azaltzeko eskatzen zigun eta oso ondo "harrapatu" zuen nahi genuena. Ez genuen perfektzioa bilatzen. Gainera, lana bukatzean esan zigun emazteari asko gustatu zitzaiola, eta hori da garrantzitsua: disko hau punkyen neskentzat egin dugu.

Zentzumen guztiez gozatzeko lana da?

I.O.: Diskoa pirateatzeko aukera izango da, baina *Gosariak*-en zati bat besterik ez duzu eskuratuko. Entzuten den eskultura bat, irakurtzen den margolan bat da, gogoari eskainitako gosariak.

Nolakoa da lan hau egin osteko biharamuna?

I.O.: Diskoa bukatzean izan genuen erditze edo koito osteko depresioa. Baina orain oso gustura gaude, egundoko oparia izan da. Gure ardura handia Sarrionandiaren gustukoa izatea zen, eta hari gustatu zaiola badakigu.

I.B.: Orain saltzea besterik ez da falta, autoekoizten jarraitzeko.

Nola eramango duzue lan hau zuzenekoetara? Inigok eta Juan Luisek ere parte hartuko dute?

2015ean, apirilera bitartean aurkeztuko dugu, emanaldi gutxi izango dira. Gu zutik airtuko gara eta ikusleak jarrita, ez da Gosereren ohiko kontzertua izango. ■





Harpidetza bakoitzarekin, are independenteago

*Jarri ekonomikoki zure tanta
etorkizuna margotzen jarrai dezagun*

Garrantzitsua denaz informatuta egoteko, ikuspegi kritikoarekin

Argiaren proiektu komunikatiboa babesteko eta bultzatzeko

Argiaren balioetan sakontzeko

Mahai gainean jarri nahi dituzun eztabaidak jendarteratzeko

Zuretzat garrantzitsua dena denentzat garrantzitsua izateko

ARGIA astero jasotzeko aukera: **hilean 12 €** baino ez!*


ARGIA hilean behin jasotzeko aukera: **hilean 4 €** baino gutxiago!**

***Egizu, egiozu
harpidetza!***

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:

1. Karrika. Emakumezkoen atorra mota. 2. Ametz oihana. ... hoc, latinezko lokuzioa. 3. Katuaren miaua. Haragi erre. 4. Lapurdiko udalerria. Abiatzen da. 5. Mondragon Unibertsitatea. ... gairi, oroz gairetik. Egiatan. 6. Dirua gastatu, xahutu (bizkaieraz). Arabieraz mintzatzen dena. 7. Hutsa, errua. Askatu eta ihes egin. 8. Bizkaiko badia. Bakoitzean bat bakarra (bi hitz).

Goitik behera:

1. Argazkiko sendabelarra. 2. Baztango herria. 3. Bigun, ezti. Suitzako ibaia. 4. "Ageri direnak, ispilu beharrik ..." Hozkatuz, hortzak sartuz. 5. Ezagutza guztiz espekulatiboa. 6. Madarikazio. Terbioaren sinboloa. 7. Sobera, gehiegi. Zerga. 8. Edanarazi, edaten eman. 9. Barrenkorra. 10. Deiadarra, auhena. ... Laden, buruzagi arabiarra. 11. Euskal Irrati Telebista. 12. Zetazko edo kotoizko ehun arina. 13. Hari bihurtu. 14. Zehea. 15. Jagole.

Sudokuak

Erraza

	6					9	1	4
7		1			6			
		4			3	5		
9	5	3		7				
3				4				5
		1		9	7			8
		8	9			3		
			2			4		6
4	3	6					2	

Zaila

		6	5					7
	7		9		2		6	
5	2				8			
					9		2	
	4	2				8	3	
	3		8					
			2				1	6
	6		1		7		8	
1					5	3		

Kike Amonarrizen umorea

Eraikuntza

Epaileak honelaxe galdetu dio lekukoari:

- Lanbidea?
- Higiezinaren sustatzailea.
- Eta hori zer da zehazki?

– Hara, epaile anderea! Nire lana da jendea animatzea, eraiki ez diren eta behar ez dituen etxebizitzak oraindik irabazi ez duten diruaz eros diezazkidaten.



Soluzioak

4	3	6	5	7	1	8	2	9
1	7	9	2	3	8	4	5	6
5	2	8	6	4	3	7	1	
6	4	2	1	5	9	7	3	8
3	8	7	6	4	2	1	9	5
2	6	1	5	3	8	7	9	4
7	5	1	4	6	9	2	8	3
8	6	3	7	2	5	9	1	4

Erraza

1	6	8	4	6	5	3	7	2
2	6	3	1	9	7	4	8	5
4	5	7	2	8	3	9	1	6
9	3	1	8	2	6	7	5	4
6	4	2	7	5	1	8	3	9
7	8	5	3	4	9	6	2	1
5	2	9	6	7	8	1	4	3
3	7	4	9	1	2	5	6	8
8	1	6	5	3	4	2	9	7

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Kale, Biluza. 2. Amezti, Ad. 3. Maiz, Errak. 4. Ainhoa, Doa. 5. MU, Orotan, Egiat. 6. Iraz, Arabiarren. 7. Akatsa, Iztur. 8. Abta, Banan-banan. **Goitik behera:** 1. Kamantila. 2. Amatur. 3. Ieun, Aar. 4. Ez, Hozka. 5. Teoria. 6. Bira, Tb. 7. Iar, Tasa. 8. Edaran. 9. Sakona. 10. Adia, Bin. 11. EITB. 12. Giza. 13. Irun. 14. Arra. 15. Zain.



Mimetismoa, elkar ulertzeko

HORMAN POSTER Bilboko antzerki taldearen lan berriena dugu *Magia Sinpatikoa*, BAD jaialdian estreinatu eta gero, Bartzelonan ere oraintsu arrakastaz erakutsi dena. Matxalen de Pedro eta Igor de Quadra aktoreak eta Mbaye Sene dantzari sena-galdarra dira antzezlaneko hiru protagonistak. Mimesia eta enpatia dute ardatz. “Pierrot, mimo edo mimesiaren inguruan lan egin nahi genuen, pertsonaia klasiko hori egungo eszena garaikidera ekarri”, azaldu du Matxalen de Pedrok. “Mimesiak lotura handia du antzerkiarekin, baina beste alor batzuetan ere badu garrantzirik, biologian adibidez, mimetismoa edo kamuflajea biziraupenerako estrategia ere bada zenbait animalien kasuan”, erantsi du Igor de Quadrak.

Bi kulturak topo egitean ere mimetismoa gertatzen da bi aktoreon ustez, eta ildo horri heldu diote *Magia Sinpatikoa* obran. “Oso oinarritzko mekanismoa da elkar imitatzeko, bai babesteko, baita komunikatzeko ere”, dio de Quadrak.

James Frazer antropologoak 1890ean argitaratutako *Urrezko Ada-*

Magia Sinpatikoa.
Horman Poster.

Noiz: abenduaren 21a.

Non: Gasteizko
Baratza Aretoa.

rra liburuan aipatu zituen *Magia Sinpatikoa* eta *Magia Enpatikoa* kontzeptuak, “gizakiak antzekotasunak hurbiltzen dituela esan nahi zuen kontzeptu horien bidez. Bata bestearengana hurbiltzeko modu bat da mimesia, gizakiek elkar ulertzeko eta bizirauteko dugun moldea”. Frazerren garaian, Europa mundua kolonizatzen ari zen, eta Darwinen Espezieen Eboluzioaren teoriak aldekoen eta aurkakoen arteko eztabaida sutsuak piztu zituen. Hala ere, “Kolonialismoak, hurbiltzen gaituen magia hori bestea menderatzeko erabili zuen”, dio de Pedrok: “Hau guztia dago *Magia Sinpatikoa* obraren atzean”.

Antzezlanean beste elementu bat, John Glover XIX mendeko margolari ingelesaren koadro handi bat

dugu. Espazio eszenikoaren elementu bakanetako bat da. Glover Tasmanian abiatu zen garai hartan, eta hango paisaiak margotu zituen batik bat, baita hango biztanleak ere. “Koadroarekin elkarrizketa sortzen da, bertako biztanleek jasandako sarraskiaren istorioa kontatzen du, dramaturgiarako edukia eman digu”, Igor de Quadarren hitzetan.

Hirugarren antzezlea Mbaye Sene dugu, bi aktoreek kudeatzen duten Muelle 3 dantza eskolan eza-gutu zuten elkar, musika afrikar eta dantza irakaslea baita. “Interesgarria irudituko zitzaigun bera gonbidatzea. Eta ekarpen garrantzitsua egin du, dantzari eta musikari tradizionala izan arren, garaikidetasuna interesatzen zaiolako”.

Hizkuntza ere jolasaren partetzat hartu dute Horman Poster taldeko kideek, eta obra eleanitza sortu dute. Euskara nagusi bada ere, frantsesa, ingelesa, gaztelera eta wolofera, Senegaleko hizkuntza, entzuten dira obran. ■

Myriam Garzia



Regin, AEBek Europa espiatzeko erabili zuten birus informatikoa

2013AN EDWARD SNOWDENEK AEBetako NSA eta Erresuma Batuko GCHQ gobernu-agentziak Europako hainbat estatutako administrazioa espiatzen ari zirela azaldu zuen, eta denon gogoan dagoen eskandalua gertatu zen.

Baina, nola espiatzen zuten?

Joan den azaroaren 23an, Symantec enpresak esan zuen erabilitako espioitza sistema atzeman zuela. Adierazi zutenenez, arestian aipatutako agentziek Regin izeneko birusa baliatu zuten, luzaroan antza denez. Europako Batzordeko komunikazioak kudeatzen dituen Belgacom enpresaren bidez sartu omen zen birusa espiatu beharreko sistema informatikoetan, eta hainbat etapatan egin zuen bere lana.

Lehenbizi LinkedIn sare profesionalaren orri faltsu bat bidali zitzairen hainbat teknikariri, eta horietako batek edo batzuek orria zabaltzean birusa ordenagailuetan ezkutatu zen, Microsoftek erabiltzen dituen fitxategi-izenak erabiliz. Ondoren ordenagailu eta zerbitzarien bihotza den kernelean instalatu zen, eta bere ibilbidean utzitako arrasto guztiak ezabatu zituen.

Birus horien bidez, giza espioiek milaka ordenagailuren kontrola lortu eta milaka dokumentu pribatu eta konfidentzialen berri izan zuten. ■



JIM URQUHART / REUTERS

Itsas trikuak, itsasoko ekosistemen orekarako giltzarriak

Bartzelonako Unibertsitateko ikerlari talde batek algen, itsas trikuen eta hainbat arrainen arteko oreka aztertu du. Behatu dutenez, trikuak algak jaten dituzte eta arrainek trikuak; populazio horietako baten gora-beherak berehalako eragina izan dezake gainerako taldeetan.

ttiki.com/92199

(Gaztelaniaz)

Material berri batek eguzkiko beroaren %90 xurga dezake


San Diegoko Unibertsitateko (AEB) ikerlariak diseinatu duten material batek, eguzkitik iristen zaigun beroaren %90 baliatzeaz gain, 700 gardura bitarteko tenperaturak jasan ditzake. Asmakuntza, batez ere, eguzkiaren energia baliatzen duten zentral termikoetan izan daiteke erabilgarria.

ttiki.com/92200

(Gaztelaniaz)

Etxe barrua hozteko balio duen material berria

STANFORD UNIBERTSITATEA



AZKEN HAMARKADETAN izugarri hedatu da aire girotuaren erabilera, eta horren ondorioz energia kontsumoa asko handitu da.

Nature aldizkarian argitara emandako artikulua batean azaldu dutenez, AEBetako Stanford Unibertsitateko ikerlari talde batek arazoa arindu dezakeen material berria sortu du. Aluminiozko xafla bat baino meheagoa da, eta bi zeregin betetzen ditu: batetik, gela

batean dagoen beroa espaziorantz bidaltzen du, erradiazio infragorri gisa; bestetik, eguzkitik datozen izpiak islatzen ditu. Era horretan, xafla kokatua dagoen teilatupeko gelan bost graduko tenperatura jaitsiera lor daiteke. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Lekitto-belarra eta sorkia

UDAZKENEROKO dolarez dolareko ibileran, aurten geldialdi berri bat egitea egokitu zait. Ustekabean topatu dut dolarea. Txakolin dolarea. Lekeitiora gonbidatu naute, baratze batera. Gezurra badirudi ere, lurrekotik lotu naute Lekeitiora, ez itsasokotik.

Garai batean txakolina erruz egiten zen Lekeition, milaka litro asko eta asko. Egun oso gutxi egiten da, baina txakolin polita. Nik Itziar Goienetxeak *Pipas* izenarekin egiten duena dastatu dut: ederra!

Usotegin ezagutu nuen txakolin hori. Usotegi, herriko sarreran dagoen baratze eder baten izena da. Pendiz bizian, harlanduzko harresiz inguratuta, taulen erosoak izateko mailakatutako baratze-
ra, beheko kaleko sarrera hanpatsu batetik erdiz erdi gora egiten duen eskailera zabal batetik igo-tzen da. Goian, usategi handi bat, Calabria edo Peloponeso gogora ekartzen duten bere onetik ateratako altzifre (*Cupressus sempervirens*) hesi dotore bat zenaren hondarrek babestua. Toki ikusgarria, eguzki begi egutera ezin ibargia-
goa. Atlantikora ekarritako Mediterraneo puskatxo bat.

Utzia ez, utzie-tsia baino gehia-go abandonatua zegoen baratze hori herri baratze bihurtu dute. Lekitto-belarra (barrabasa edo txomin-belarra, *Oxalis acetosella*) deitu dioten elkarte bat sortu, eta herritar mordo bat hor dabil, baratzea aitzakia duela, lurrarekiko lotura lekeitiarren artean itsatsarazi nahian. Belar madarikatuaren izena iraultzarazi. Herriarena den baratze horren utzikeria iraultzeari ekin ziotela bi urte bete dira aurt-
ten, eta, txukundu eta ederki jantzi ondoren, jendeari ireki dira baratzea eta baratzezainak. Jai gozoa eratu dute: joaldunak, herriko nekazarien mozkinak...

Hortxe zegoen aipatutako txakolina. Aldameneko mahaian, pipermin (*Piper* sp.) eta kipula gorri (*Allium cepa*) artean hantxe, aulkitxoan, Mendexako Perliene-



Lekitto-belarra edo txomin-belarra, *Oxalis acetosella*.

ko Edurne Agirre. Piperminen minaren graduaz galdetu eta betirako lagun egin ginen. Hamahiru urte zitueneko kontuak berritu zizkigun, duela 69, tratura jaisten hasi zenean emakumeek buruan, sorkiaren gainean, edozer gauza nola garraiatzen zuten, otzara bezala pegarra, gerriaren hara-honako graziaren zipitzik ere galdu gabe, marinelen bat begira izanda ere... Sorkia, urteak nera-matzen hitz horren peskizan. ■



HANNA ZELENKO-CC BY SA

Erretura

Hiztegi ugaritan ageri da. Ereiteko dagoen soroan egiten den sua. Alorrean erretzen den zabor piloa. Soroetan egiten den belar, sasi eta arduien errea, gero errautsak lurrean barreiatzeko. Soroan batutako zakarrak erretzea. Zerbait erein behar den soroetan, pilan ipinita, belar txar eta zaborreriaz egiten den sua. Zaborrieriarekin, lur eta guzti, pila egin eta sua ematen zaio. Horri esaten zaio erretura. Edo errola, edo errelua.

Landu behar den saila izakitu edo zopizartu, eta kendutako belarrak lur eta guzti egur pixka batekin egindako suaren gainean erre. Erreturaren tokian lurra gorri geratuko da eta sail guztian banatzen da, errauts gisara, ongarri on askoa. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



ellauri
HOTELA


KILO TERDI TXOKOA

Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu

Kutsa nazazu, mesedez



Ezkerrean, prostituta bat Pariseko kaleetan, Lehen Mundu Gerraren urteetan. Alboan, umorezko posta txartela, soldaduak burdel batean irudikatzen dituen.

LODZ (EGUNGO POLONIA), 1917KO MARTXOA. Alemaniar okupatzaileek prostituzioa arautzea erabaki zuten, fronteko beste hainbat tokitan alde batekoek zein beste-koek egin bezala. Astero azterketa medikua pasa behar zuten prostitutek, eta tarifa finkoak ezarri behar izan zituzten: gau osoak 30 marko balio zuen; gauaz bizpahiru ordu eman nahi zituenak 20 marko ordaindu behar zituen; ordubete nahikoa zuenak, aldiz, hamar marko; eta tarifa merkeena egunekoa zen, hamar markoren truke prostitutarekin nahi adina denbora eman baitzeza-keten goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 6ak bitartean.

Gerra eta prostituzioa elkarri lotuta joan dira beti. Eskaera handitzen denez, negozioarako onak dira gatazkak. Baina eskaerak gora egin ahala sexu langileen lan baldintzek behera egin ohi dute: higieena, bezeroak, baliabideen eskuragarritasuna... Sexu bidez kutsatzen diren gaixotasunentzat haztegi ezin hobe.

Atarian aipatu bezala, Lehen Mundu Gerran ere agintari militarrek kutsatze arriskua txikitzen ahalegin du ziren. Haien mendeko soldadu askok, ordea, kontrako bidea hartu zuten. Gerra Handiaren izugarrikeriek

soldadu/prostituta binomioaren ordura arteko logika irauli zuten: sexu bidezko eritasunak zituzten prostituta- tak garestiagoak ziren astero azterketa medikua gaindi- tzen zuten neska osasuntsuago haiek baino. Eskaera eta eskaintzaren legeak ezarri zituen prezioak beste behin. Izan ere, prostituta gaixoen eskaera izugarri hazi zen, soldaduek, sexua baino gehiago, gaitz benereok erosi nahi zituztelako. Kutsatuta, gaixotasunagatiko baimena emango zieten eta ez ziren lubakietara itzuliko.

Horrenbestez, prostituzioa zerbitzu bikoitza eskain- tzen hasi zen: sexua eta frontea saihesteko aitzakiak. Eta geroz eta bezero gehiago sexuaren partea bazter- tzen hasi ziren, zuzenean infekzioaren bila joateko. Hala, merkatu higuin garri eta etekintsua sortu zen: gonorrrea zornea, esaterako, potetxoetan bilduta sal- tzen zuten, soldaduek zuzenean genitaletan igurtzi zezaten. Eta prostitutak ez ziren hornitzaile bakarrak; tuberkulosoek espektoratuta- ko mukien eskaerak ere gora egin zuen, adibidez. Edozer gauza zen frontera joatea baino hobe. ■



Arrastoak

Ibilaldi birtuala Bartzelona erromatarrean



IULIA AUGUSTA FAVENTIA PATERNA BARCINO erromatar kolonian, hau da, K.o. III. mendeko Bartzelonan birtualki ibiltzeko *Barcino 3D* aplikazioa eskura- garri dago telefono eta tabletetan erabil- tzeko, katalanez, gaztelaz zein ingele- sez. Bartzelonako Udaleko Arkeologia Zerbitzuak 2012an abiarazi zuen Bârçi-

no Plana, hiri erromatarrari buruzko ikerketa, indusketa, dokumentazio eta hedapen lanak egiteko, eta ekimen horren barruan garatu dute aplikazioa.

Ezkerreko irudian, esaterako, hiriko gune nagusietakoa ikus daiteke, Augustoren tenplua, Barcinoko foroa- ren erdialdean. ■

A



ADINGABEAK JOKOZ KANPO



**JOKOAK
ADIKZIOA SOR DEZAKE**

DEBEKATUTA 18 URTETIK BEHERAKOENTZAT

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA

SEGURTASUN SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



V

«Hauteskundeen ondoren independentzia adierazpena da egin beharreko lehen gauza»

ERC alderdiko zuzendaritzako kide eta Kataluniako Parlamentuko diputatu da Oriol Amorós (Bartzelona, 1970). Artur Mas presidentek independentzia lortzeko proposamena egin ondoren bildu gara harekin eta Oriol Junqueras ERCko buruzagiak berea egin aurretik. Oraingoz ez da akordiorik, baina Amorósen gaztigan, iritsiko dira akordio batera.

| ARITZ GALARRAGA |
Argazkiak: Núria Juan Serrahima

Ez indar soberanistek hasieran desio zuten moduan, baina katalanek boza emateko aukera izan zuten azaroaren 9an. Zer irakurketa egiten du ERCk?

Egun ezin positiboagoa izan zen, 2,3 milioi katalan intsumiso izan zitzaizkion Estatuari, erabaki zuten askatasunean egitea bidea. Keinu handia izan zen, beraz, baina izan zen mobilizazio bat. Ez zen izan lotura juridikoa zuen erreferendum bat, eta ondorioz ez zen bilatzen genuena. Baina katalanen erantzunaren aldetik, oso baikorra, noski, Espainiako Gobernuako ordezkari, fiskal eta abarrekoen mehatxu eta erasoak desobeditzea aukeratu zutelako, beldurra zabaltzeko saiakera guztien gainetik.

Hasierako mesfidantzak gorabehera, beraz, balorazio positiboa egiten duzue.

Tira, guk azaroaren 9 berriari buruz esan genuen gauza bakarra izan zen, ez zela hasierako azaroaren 9ak izan behar zuena bezalako kontsulta bat. Elementu garrantzitsu bat galdu genuen, kontsulta bat egin behar genuen eta azkenean egin genuen prozesu parte-hartzaile bat. Mobilizazio gisa arrakastatsua izan dena, baina ez Masek agindu zuen kontsulta.

Egin zitekeen kontsulta hori?

Uste dut ez duela merezi orain eztabaidatzea. Prozesu parte-hartzailea berdin jazarri behar bazuen fiskalak, handira jo zitekeen hordagoa. Baina ez du merezi jada.

“Nahi dugu gauza askotan modu diferentean, are antagonikoan pentsatzen duen jendeak independentziaren alde bozkatu ahal izatea”

1,9 milioi pertsonak eman zuten botoa independentziaren alde. Gehiago espero zenituzten?

Beti nahiko genituzke gehiago, baina zifra oso inportantea da. Hauteskunde batzuetan 1,9 milioi boto gehien-go absolutu garbia lirateke. Kontuan izan behar dugu gainera ohikoan baino lau aldiz kolegio gutxiago zegoela, bozka emateko lekuaren informazioa ez zela etxe guztietara iritsi. Eta bozketa mehatxupear egin zela. Niri pasa zitzaidan hautesmahaian nengoela: funtzionario batzuek esan zidaten parte hartu nahi zutela, baina epaile batek parte-hartzaileen zerrenda eska zezakeenez, ez zutela bozka emango.

Artur Masen independentzia lortzeko proposamena zer iruditu zaio ERCri?

Aurrerapauso bat, bi motibogatik: lehen aldiz Masek hitz egin du independentziaren horizontear, eta lehen aldiz jarri du data bat. Proposamen bat da eta ondorioz eztabaidatu behar da, guk ekarpenak egingo ditugu hobetzeko. Estatu egiturak, adibidez, dagoeneko eginda beharko lukete, legealdi honetan egitea adostu genuen. Beraz, hauteskundeen ondorengo 18 hilabeteak, estatu egiturak bukatzeko bai, baina soberaniatik gauzatzeko erabili behar ditugu.

Espainiako legediaren baitan egiten badugu, badakigu zer pasakoden, dena debekatuko digu. Beraz, hauteskundeen ondoren egin beharreko lehen gauza da independentzia adierazpena, gobernuari aginte demokratiko bat emateko independentzia gauzatzeko lan egin dezan.

Proposamen zintzoa dela uste duzue, edo hainbatek esan duen bezala, Masek ipurdia salbatzeko mugimendua da?

Ez ditugu asmoak epaituko, nahia-go dugu proposamenaren irakurketa bat egin. Eta positiboki egiten dugu. Presidentearekin partekatzen dugu 2015aren hasieran plebiszitu izaerako hauteskundeak egiteko



"Hauteskundeen ondoren egin beharreko lehen gauza da independentzia adierazpena, gobernuari agente demokratiko bat ematea independentzia gauatzeko lan egin dezan".

borondatea, eta hauteskunde horien garrantzia, independentzia lortzeko lehen pausu gisa.

Gizarte zibilaren ordezkari garrantzitsuenak, ANC Kataluniako Biltzar Nazionala, Masen proposamenaren alde agertu da.

Bi gauza esan ditu: gustatuko litzaiokeela Masen proposamena alderdi guztiek onartzea, baina independentzia lortzeko beste edozein bide ere ondo ikusiko lukeela. Ondorioz, alderdiei eskatzen diete ados jar daitezen bide horretan.

ERC uzkur agertzen zen hauteskundeetara zerrenda bakarrean joatea-

ren aurrean. Masen proposamena eta gero, malguago agertu da. Zein da gehiengo independentista ahalik eta handiena lortzeko biderik eraginkorrena?

Zerrenda desberdin batzuek programaren puntu nagusi bat partekatzea, gure ustean. Oso garrantzitsua da ahalik eta jende gehien bilduko duen modua aurkitzea. Tesi ekonomiko erabat liberalak defendatzen dituen jendea da independentziaren aldekoa. Berdin proposamen erabat kontrakoak dituen ezkerreko jendea. Ez dakit bi horiek eroso egongo diren zerrenda berean, eta bi botoak nahi ditugu, ezin dugu galdu ez bata ez bestea. Nahi dugu gauza

askotan modu diferentean, are antagonikoan pentsatzen duen jendeak independentziaren alde bozkatu ahal izatea. Zer egin dezakegu independentziari bozka eman nahi dioten guztiek bozka emateko: independentzia proposamen partekatu bat aurkeztuta, programa sozioekonomiko ezberdinak dituzten zerrenda bat baino gehiago eskaintzea.

Laburbilduz: ados jarriko zarete.

Seguru, gizarteak eskatzen digu akordioetara iristea.

Masen lidergoa mantentzearen alde dago ERC?

Masen lidergoa oso garrantzitsua da,



Tolosako Babarruna



Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com



LUAarkitektoak

hirigintza
hirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com



MARCOS
okindegia

Benetako aitzinako ogia

☎ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

proiektzio handia dauka nazioartean, prozesuak duen aktiboetako bat da. Eta guk ez dugu aktibo bakar bat ere galdu nahi. Era berean, prozesuak bertute handi bat du: izaera plurala. 2008tik hona egindako mobilizazio erraldoi guztiak pertsona talde oso desberdin batek eraman ditu aurrera. Hurrengo hauteskundeetara aurkezteko modua dena delakoa izanik ere, ERCk lan egingo du aktiboek jarrai dezaten aktibo izaten.

ERC lehen indar gisa agertzen zen azkenaldiko inkestetan. Azaroaren 9aren ondorengoetan berriz bueltatu da CIU lehen lekura. Ardura dizue horrek?

Batere ez. Inkesta bat ateratzen den bakoitzean eskatzen digute balorazio bat, eta beti esan izan dugu lehenik, erabakitze eskubidearen aldeko indarren arteko batuketa dela garrantzitsua. Emaiza onak opa dizkiegu gainontzeko indar soberanistei, noski.

Esan dugu, 1,9 milioi independentista. Batzuek aipatzen dute 300.000 boz falta direla gehiengo absolutua lortzeko.

Ados nago, babes handiagoa bilatu behar dugu, beti. Independentziaren aldeko jende gehiago erakartzeko, garrantzitsua da ondo esplikatzeari zergatik nahi dugun independentzia. Ez dugu bandera aldaketa soil bat egin nahi, herrialde eredu berri bat nahi dugu, eta herrialde eredian bilatu behar dugu babes gehien. Gerta daiteke independentzia nahi duen jendea egotea, baina nahi izatea bestelako herrialde eredu bat. Eta gerta daiteke, beraz, pluraltasunetik iristea



“Guk erabakitze eskubidea orain nahi dugu. Espainiak erregenerazio prozesu bat egiten badu, primeran, baina gu dagoeneko egiten ari gara politikaren aldaketa”.

urrutirago, dimentsio bakarreko proposamen batekin baino. Independentziaren aldeko zerrenda bat egon edo hiru —gehiago ez dut uste—, aurkitu behar dugu modua herrialde eredu desberdineko jendeak herri berri, hobe, garbi, justu baten esperantza ikus dezan independentziaren bitartez.

Azkenaldiko eztabaida publikoak ez ote diren zentratu kontsultaren aldeko eta kontrako arrazoietan, adibidez, independentziaren onura eta desabantailetan baino.

Arrazoi duzu, gustatuko litzaiguke eztabaida termino horietan gertatzea. Baina gertatu da eztabaida biziena kontu juridiko baten ingurukoa izan dela, erabaki dezakegun edo ezin dugun erabaki. Eta hitz egin denean independentzia ona edo txarra izan daitekeen, mehatxupean egin da. Lehen eztabaidan, onartzen dut abantaila taktiko bat izan dugula: Estatuak, ezezkoan beti, lagundu du eraikitzen demokrazia independentziaren sinonimo denaren ideia. Horregatik hazi da independentismoa. Baina beste debatean, erabili izan dute abantaila taktiko bat: jarri dute mahaiaren gainean mehatxu segida bat, ez doazenak berez lotuta independentziari, ez badoaz lotuta independentziaren aurreko Estatuaren jarrerari. Beldurraren karta jokatzen dute, baina aldi berean esaten ari dira ez dutela ezer onik nahi guretzat. Eta,

noski, nork izan nahi du zuretzat onik desio ez duen proiektu baten parte?

Espainiako Estatuaren erregenerazio demokratiko batek, Podemos aipatzen da orain, nola hunki lezake Kataluniako prozesua?

Esan izan digute: Estatuaren aldaketa gauzatzen laguntzen badugu, agian hemendik urte batzuetara Estatuaren aitorpena jasoko dugula. Ipuin hori askotan esplikatu digute, eta askotan esan dugu baietz, parte hartu dugu, Errepublikak ekartzeko, Trantsizio garaian, Europar Batasunean sartzeko. Hainbeste dezepzio jasota gaude, ordea, ikasi dugula lezioa. Podemos, ikusten dugu pauso berdinak jarraitzen ari dela. Orain hilabete batzuk esan zuen katalanen erabakitze eskubidea defendatzen zuela, orain ja ari da esaten espainiarren osotasunari dagokion erabakitze eskubide batean har dezagula parte, Espainia berri batetarantz joateko, eta hor izango dugula erabakitze eskubidea. Eta, barkatu, guk erabakitze eskubidea orain nahi dugu. Espainiak erregenerazio prozesu bat egiten badu, primeran, baina gu dagoeneko egiten ari gara politikaren aldaketa. Kataluniako prozesua iraultza demokratiko bat da. Labur, herrien etorkizun politikoa jendeak erabakiko du. Iraultza demokratiko batean ari gara azken lau urteotan. ■



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

ANTISORGAILU HORMONALAK

Askatzaileak al dira emakumearentzat?


Pilula asmatu zenean, hainbat emakume taldek emakumea behingoz ugalketaz erabakitzeke posizioan zegoela uste zuen. Bestelako ahotsak ere badira ordea, ez ote diogu gure gorputza ezagutzeari utzi eta industria farmazeutikoaren esku laga gure gorputzaren kudeaketa?

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

MERITXELL GUÀRDIA I SERENTILLEK idatzi du artikulu luze eta mamitsua Pikara Magazine webgunean. Espainiako Estatuko osasun sistemak antisorgailu hormonalak lehenesten ditu “harreman egonkorretan”, metodo naturalak eta norberak kudeatu beharreko metodoak alde batera utzita.

Medikuntzak dioenez, bestelako metodoak ez dira eraginkorrak. Aldiz, Osasunaren Mundu Erakundeak %95eko eraginkortasuna dutela dio. Antisorgailu hormonalak ez diren bestelako metodoak erabiltzeko emakumeak bere gorputza oso ondo ezagutu behar du, baita hilekoaren zikloa ere, eta antisorgailu hormonalen erabileraren kontrakoan ustez, medikuntzako erakundeek interes gutxi dute halako metodoak bultzatzeko. Izan ere, diafragma edo planifikazio naturalak erabiltzeko emakumeei (eta baldin badute bikotekideei) irakatsi egin behar zaie eta horrek denbora eskatzen du. Ana Moreno emaginak dioen moduan, “emakumei autogestiorako boterea eman eta haien gaitasunetan sinetsi”.

Enriqueta Barranco ginekologoa urrutirago doa, eta hala dio: “Ez dezagun ahaztu, askotan, zientzia patriarkalak jaiotza kontrolaren bidez emakume ugalkorrak kontrolatzen ditu, erdi ezkutuan bada ere. Industriak ugalkortasuna autogestioatzeko dauden metodo eraginkorrak gutxiesten ditu, eta horrela, haien proposamen bortitzei uko



WWW.TODANOTICIA.COM

Bayer enpresak 8.900 demanda jaso zituen antisorgailuen ondorioengatik.

egin dien emakumeen autokonfiantza ahultzen dute”.

Artikulu luzearen egileak gai beraren beste adar batzuk ere aletu ditu. Gizonak, nahita edo nahigabe, familia-plangintza ugaritatik kanpo utzi dituztela dio Guàrdiak. Gaur egun bi antisorgailu metodo baino ez daude: preserbatiboa eta basektomia. Oso proba eta ikerketa kliniko gutxi egin dira gizonentzako antisorgailu kimikoa aurkitzeko, teknologia medikoak beti emakumearen ugalkortasuna landu du. Harago doa Beatriz Preciado. Filosofoaren ustez, hormona maskulinoak gizona gizontzeko eta sexualizatzeko erabiltzen dira eta hormonona femeninoen helburua berriz, emakumeen sexualitatea eta ugaltzeko gaitasuna kontrolatzea da.

Egileak antisorgailu hormonalen bigarren mailako efektuak landu ditu

artikuluaren. Bayer industria farmazeutikoak azkeneko txosten finantzarioan (2014ko ekainekoa) adierazi du 1,8 mila milioi dolar behar izan dituela 8.900 demandari erantzuteko, izan ere, Amerikako Estatu Batuetako milaka emakumek Yaz, Yasmin, Ocella eta Gianvi markako antisorgailuek bigarren mailako efektuak eragin dizkietela salatzen dute. Artikuluaren egileak antisorgailu hormonalen ondorio positiboak zerrendatzen ditu lehenengo eta ondoren epe motzean agertzen diren ondorio txarrak, eta epe luzeak. Kontuan izan behar da antisorgailu hormonalak ez dituztela ugalkortasuna kontrolatu nahi duten emakumeek soilik erabiltzen, aknearen, hirsutismoaren (ilea haztea) eta burusoiltasunaren kontra ere hartzen dituzte. ■





ADIERAZPENAK EITB-N

«Eta orain gaztelaniaz, mesedez»

“Euskal Irrati Telebistak ez du inor derrigortzen nahi ez duen hizkuntzan hitz egitera, euskarazko hitzak lortzearen” (Irrati eta telebistarako eskuliburua. EITB, 2012). Zer gertatzen da, baina, adierazpenak euskaraz egiten direnean? Kazetaria derrigortuta ote dago gaztelaniaz ere jasotzera adierazpenok? Euskal Telebistak gaztelaniazko katea sortzeko erabakia hartu zuenetik horixe izan da jokamoldea, inon jasota ez badator ere.

| MARIJO DEOGRACIAS |

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak erabaki du ETBekin ofizialki euskaraz ariko dela. Lea-Artibai eta Urola Kostako udal ordezkariak ere bide bera hartzea adostu dute. ETBri jakinarazi diote elkarrekin egindako bilera bidez. Antza, Eibarko entrenatzaile Gaizka Garitanok ere asmo bera izan du eta euskaraz ariko zaie ETBkoei; etxeko txikiak Euskal Telebistan euskaraz mintzatzen ikus dezaten nahi du futbol entrenatzaileak.

Banakako erabakiak dira, noski. ARGIAN bertan Juan Inazio Hartsuagak esan zuenaren kontrara, baliteke esperantzarako tartea egotea eta euskaltzaleak ere egotea euskal hiztunen artean. Baina nola heldu gara Goizalde Landabasok ondo baino hobeto azaltzen zuen “Korte bat, mesedez [euskaraz]” hartatik, “eta orain erdaraz, mesedez” horretara?

Euskal telebista publikoa euskara hutsez emititzen hasi zen hartan,

herritarren informazio eta parte-hartze politikoa sustatzeko eginkizunaz gainera, bere gain hartu zituen euskara eta euskal kulturaren sustatzea. Izan ere, garai hartan euskaldunak populazioaren %21 baino ez ziren EAEn. Ehunekoa hain zen txikia ezen, “Eusko Jaurlaritzak bere telebistari jarritako integrazio politikoaren helburua, populazioaren %100 hartzen zuena helmugan, hankamotz gera zitekeen euskara hutsezko emanaldiekin”. Halaxe

Juanan Legorburu kazetariaren ustez, ezinbestekoa da zuzendaritzak erabakia garbi hartzea: kazetariei jakinaraztea, adierazpenak euskaraz egiten dituenari ez zaiola gaztelaniaz ere egin ditzan eskatuko

jaso zuen EHUko irakasle Josu Amezagak *Euskal Telebista 30 urteren ostean* artikuluan. ETBren hizkuntza politikaren argirik eza agerian geratu zela azaltzen zuen berak, eta galdera ere egiten zuen: “Hizkuntza politikaren argirik eza, ala hizkuntza politika ezkutua?”. Kontua da harrezkerro, ETBren gaztelaniazko katearen sorrerarekin, kanal bikoizketa eman zela eta horrek “hasierako asmoen berrirakurketa” ekarri zuela “berezi-ki euskararen suspertuntzari dago-kionean”. Are gehiago, Kultura Sailak 1992an Legebiltzarrera bidalitako txostenetik Amezagak ondorioztatzen duenez, “euskarazko irrati zein telebistaren ardura da euskararen suspertuntza, eta gaztelaniazko medioena informazioa eta parte-hartze politikoa bultzatzea”. Ordutik kanal bakoitza populazioaren zati bati zuzendu zaio eta “euskal telebistaren auzia Euskal Herri osorako telebistaren auzia izatetik euskaldunentzako telebistaren auzia izatera pasatu zen, gutxiengo baten kontua, herri oso batentzako egitas-moa baino areago”.



AMANE IBAÑEZ

Josu Amezagak bildutako datuen arabera, ETB2k ikusleen bi heren euskarazko ikusle potentzialen saskitik jasotzen ditu, eta ez erdaldun elebazarren multzotik. Argazkian, Amane Ibañez kazetaria lanean.

Plan estrategikoa

Badirudi gauzak aldatzen ari direla erakusten duten zantzuak daudela. ETB1 euskaldunentzako eta ETB2 ez euskaldunentzako dikotomiarekin apurtzeko urratsak ematea erabaki duela EITBren zuzendaritzak. Horren adierazle da 2013-2016 plan estrategikoa: “Azken hamarkadetan gizarteak egin duen euskalduntzeko ahalegina aintzat hartuta, euskararen normalizazioa lortzeko beste urrats batzuk egin behar direla proposatzen da lehenengo aldiz EITBren plan estrategiko batean”. Eta, giltza izan daiteke hori zeren eta planak berak jasotzen duenez, “EiTB sortu zeneko garaian, euskal gizarte gehienbat gaztelaniaduna zen; testuinguru historiko horri errepara-

tuta, euskal herri-administrazioek sustatutako asmo handiko normalizazio-plangintzaren atarian geunden. Gaur egun, berriz, biztanle guztien bi herenek badakite euskaraz (...) herritarrak gehienbat elebidunak dira. Berezi, 45 urtetik beherako biztanleriari dagokionez, geroz eta jende gehiagok daki euskaraz”. Testuinguru horretan, bada, EITBk erabaki du gaztelania komunikazio hizkuntza duten euskarrietan (ETB2, Radio Euskadi eta Radio Vitoria) “lekua egitea euskarari, eta modu naturalean eta era pedagogikoan” jardutea euskararen erabilera sustatzeko. Asmoa litzateke “euskaldunen presentzia gero eta ohikoago bihurtu” eta “euskararen gizarte prestigioa indartzea”.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena.

Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuetarako erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua.

Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua



Erabaki militantea

EiTBko euskara arduradun Asier Larrinagaren iritziz, gaztelaniazko medioetan euskara ikusgai egiteak “bat egiten du lehendik izan dugun filosofiarekin, hau da, pertsona bakoitzaren hautua errespetatzearekin”. Gainera, orain baino lehen ere eztabaidatu izan da gaiaz eta Larrinagak berak azaldu digunez, 2006an “jaso zen lehenengoz zelan jokatu behar den adierazpenak biltzen direnean, *EiTBreko hizkuntza funtsak* liburuan. Dokumentu horretan esaten dena funtsean da EiTBk errespetatuko duela kasu guztietan herritarren hautua, hizkuntzari dagokionez”. Beraz, filosofia da herritarren hizkuntza hautua errespetatzea, eta “pertsona batek euskaraz bakarrik egingo duela esaten badu, hala egingo da, penalizazioz gabe. Orain arte horrela jokatu dugu. Hori da enpresa honek ordutik idatziz izan duen filosofia eta zabaldu duen filosofia”. Ardura beraz, herritarrengan uzten du EiTBk. Euskal hitzunik erabaki beharko dute euskal irrati-telebistei euskaraz bakarrik aritzea, ala gaztelaniaz bere burua itzultzea.

Beraz, EiTBren plan estrategikoren lan ildoak, alegia, euskara ikusgai egitekoa gaztelaniazko medioetan, nola landuko da? Juanan Legorburu ETBko kirol kazetariaren ustez, ezinbestekoa da zuzendaritzak erabakia garbi hartzea, jokatoldea aldatze aldera. Hau da, kazetariei jakinaraztea, adierazpenak euskaraz egiten duenari ez zaio la gaztelaniaz ere egin ditzan eska-

tuko. Kiroletako kazetari beterano honek oso argi dauka: “Sistemak, ETB2 ezartzeak, behartu gaitu gaztelaniaz ere galdetzeraz; agindua inoiz idatziz eman gabe, baina egunerokoan egiteko esanda”. Horregatik ezinbestekotzat jotzen du, kazetarien joera aldatzen laguntzeko, EiTBko zuzendaritzak neurri zehatzak hartzea, baina era berean “euskaltzaleek ere beren ardura osoa hartzea. Jendeari kontzientzian eragin behar diogu. Zuen eskubidea da nahi duzuen hizkuntzan aritzea, baina zuen erabakia izango da hartzen duzuen hautua. Hausnarketa egin beharra dauka gutako bakoitzak, herritar gisa”.

“Irratian egunero sartzen da korteren bat euskaraz. 5-6 urte aurrerago daude Radio Euskadi eta Radio Vitorian. Irratia doa bide erakusle”

Asier Larrinaga,
EiTBko euskara arduraduna

Publiko euskaldun potentzialaren igoera

Bada garaia, beraz, EiTBren sorrera legeak zioen “euskararen sustapena eta zabalkundea bereziki kontuan izanik” jardutekoa. Are gehiago, euskal hitzunen kopuruak ETB2ren sorrera eman zenetik izan duen gorakada kontuan hartuta. Hizkun-

tza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak esana da euskarak ez duela sekula izan gaur adinako hiztunik. V. Mapa Soziolinguistikoaaren arabera, euskaldunen ehunekoak 14,5 puntuko hazkundea izan du 30 urteotan. Eta 20 urtetik beherako herritarrei erreparatzen badiegu, hazkundea ikaragarria izan da: %70 baino gehiago dira euskaldunak. Duela 30 urte ez zen %20ra iristen. Irakurketa osatzeko, kontuan hartzeko datuak dira CIESen arabera (2011), gaztelaniazko kanala ikusten dutenen %39 elebidunak direla eta %25 elebidun hartzaile (ulertzeko gai). Datuok EHUKo iraskale Josu Amezagak jaso zituen, eta argitzen zuenez, “ETB2k bere ikusleen heren bi (%64) euskarazko ikusle potentzialen saskitik jasotzen ditu, eta ez erdaldun elebazarren multzotik”. Beraz, eta Larrinagak dioen moduan, “errealitate horren aurrean, erdarazko medioetan ere gaur egun ez da eragozpen euskara sartzea”. Hala, esaterako, Klaudio Landaren eta Silvia Intxaurrenondoren ETB2ko saioretan “hainbeste sartzen da euskaraz” eta irratian, berriz, “egunero sartzen da korteren bat euskaraz. 5-6 urte aurrerago daude Radio Euskadi eta Radio Vitorian. Irratia doa bide erakusle”, aitortu digu Larrinagak.

Datuak datu, badirudi, badagoe-la hausnarketarako tartea; une egokia bizi dugula eztabaidari ekiteko. Aurreko administrazio kontseiluko kide eta EHUKo kazetaritza fakultateko irakasle Josi Basterretxeak adierazi zuen bezala “EiTBk ulertu behar du euskaldunak hazi eta heldu egin garela (aspaldi), adinez nagusi garela”. Beraz, eta “aldaketa handiak beharko” badira ere “ETBren erdararen aldeko joera historikoa aldatzeko eta euskararen aldeko apustua benetakoa izan dadin” egiteko daukagun eztabaida da. Eztabaida politiko-linguistikoari iskin eginez gauzatu beharrekoa gainera. Jakin baitakigu “Euskal Irrati Telebistak ez duela inor derrigortzen nahi ez duen hizkuntzan hitz egitea, euskarazko hitzak lortzearen”, ezta gaztelaniaz hitzak lortzearen ere. ■



EH Bilduk eta EAJk ere Zumarragako erresonantzia unitate euskalduna eskatu dute

ZUMARRAGAKO OSPITALEAN erresonantzia unitate berria abian jartze-koa zen abenduaren 9an. Betiko urratsak egiten badira erresonantzien txostenak gaztelaniaz baino ez dira egongo, eta litekeena da langileak euskaldunak ez izatea. Aitor Montes medikuak euskarazko txostenak lortzeko abiatutako borroka legebiltzarrerara heldu da.

Erresonantzia unitateak Osatek-ek kudeatzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakunde publikoak. Aitor Montes Aramaioiko familia medikuak eskuetan duen informazioaren arabera, erakunde publiko horrek kudeatutako erresonantzien txosten guztiak gaztelaniaz egin dira. Osatek Areetan eta Areilzan (Bilbon), Galdakaon, Txagorritxun, Donostian eta Santiagon dago. Zumarragako unitatea ireki berri da eta Montes en ustez, errazagoa da lehendik dagoen egitura bat euskalduntzen hastea baino berria euskaraz abiatzea.

Horregatik, azken egunotan, UEMAk eta Mankomunitateko kide

diren Goierri-Urola Garaiko eskualdeetako udalek zerbitzua euskaraz abiatzeko eskaera egin dute. UEMAko lehendakariak eta hainbat alkatek Osatek-eko zuzendari kudeatzaileari bidalitako gutunean Jon Darpon Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuaren hitzak ekarri dituzte gogora: “Osakidetza doazen herriarrei erosoena eta errazena zaien hizkuntzan komunikatzeko aukera ziurtatzea funtsezkoa da osagile-paziente eta familiaren arteko harremanean konfiantza eta enpatia lortzeko eta kalitatezko zerbitzua emateko”. Goierri eta Urola Garaian UEMAko kide diren hamar herri daude, alegia, biztanleen %70 baino gehiago euskaldunak dira ondoko herrietan: Arama, Alzaga, Itsasondo, Zaldibi, Gaintza, Ezkio-Itsaso, Segura, Zerain, Azpeitia eta Beizama.

UEMAren eta UEMAtik kanpo dauden hainbat udalen eskaeraz gain, EH Bilduk eta EAJk legebiltzarrean Zumarrago unitate berriak herriarrak euskaraz artatzeko urra-



tsak emateko eskaera egin dute. Erresonantzia unitatean lau motatako lanpostuak izango dira: erradiologoak, teknikaria, laguntzailea eta idazkaria. Lanpostuotan ez da derri gorrezkoa euskara jakitea, eta gehienez ere 5 puntu lortu ahal izango ditu euskara dakien hautagaiak.

Erresonantzia unitatea euskaraz abiatzeko aldarrikapena Aitor Montes Lasarte Aramaioiko familia medikuak abiatu du. Medikuek horrek, duela gutxi, Aramaion, Arrasateko Erradiologia Zerbitzuarekin batera, ekografiaren txostenak ele bitan izatea lortu zuen.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Enplegu ezegonkorra eta babes sozialik eza

ESPAINIAKO GOBERNUAK, baita Gasteiz eta Iruñekoek ere, oso baikor baloratu dituzte azaroko enpleguaren sorrera datuak. Baina objektibotasunez eta zehatz-mehatz aztertzen baditugu, ez dira etxafuegoak botatzeko modukoak. Sortutako enpleguak kalitate baxua du, ezegonkorra da, behin-behinekoa eta ordu gutxi batzuetarako baino ez diren kontratuak biltzen ditu batez ere. Langabetuek gero eta babes sozial gutxiago daukate, eta beti gertatu izan den bezala, emakumeak eta gazteak dira paroa gehien jasaten dutenak. Espainiako Estatuan Gizarte Segurantzara izena emandakoak 5.232 gehiago dira eta 14.668 langabetu gutxiago daude, 4,5 milioi osotara. Espainiako Estatuan kotizatzen dutenen azaroko gorakadak gizonei baino ez die eragin ordea (7.165 gehiago), emakumeak kaltetuta atera dira (1.932 gutxiago).

Hego Euskal Herriaren kasuan, 1.606 pertsonatan gutxitu da langabezia; 216.235 lagun daude lanik gabe. Lan kontratuen kopuruak baina, goitik oso behera egin du: 24.743 kontratu gutxiago sinatu dira. Kontratazio

mugagabea %31,73 jaitsi da. Hala, 2008ko urtarrila eta azaroa artean 91.702 kontratu mugagabe sinatu ziren; aurtien berriz, epe berean 62.600 baino ez dira izan. 2014an sinatutako kontratuen ia %94 ezegonkorra dira. Langabetuentzako babes sozialik ezak 119.560 pertsonari eragiten dio, hau da, lanik gabe dauden %54,88ri. Horrek esan nahi du milaka lagun horiek ez dutela inolako prestazio ekonomikorik jasotzen. Langabezian dauden lautik bakarrak baino ez du jasotzen ordaindutakoaren araberrako prestazio bat.

Testuinguru hori ikusita, beharrezkoa da gobernuak kalitatezko enpleguaren sorrera sustatzea eta emakumeen eta gazteen artean enplegua indartzea. Era berean, epe luzean langabezian daudenentzako politika sozial eta zerbitzu publikoetan inbertitu behar da. Ustelkeria, iruzurra eta paradisu fiskalak ezabatuko lituzketen politika irmoek inbertsio hori egiten lagunduko lukete.

Juan Mari Arregi



HIESa Afrikan medikuen inekzioek ere zabaldu zuten

Gizakion HIESa tximuen birus baten aldaerak eragin duela frogatua da eta berrian demostratu 1959an hasi zela mundura hedatzen Kinshasatik, 1890-1950 artean oihaletik hirira iritsita. Baina nola egin du jauzia? Aipatu dira hiritartzea, prostituzioa, sexu harremanen aldatzea. Gutxi aipatu da mediku kolonialek eduki duten erantzukizuna.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MEDIKU ZURIAK AFRIKAN BELTZEI txertoak jartzen, Europako bizimodu eroso abandonaturik urruneko malerusei miseriatik ateratzen laguntzera joandako heroiak... Kolonialismoaren fama txarra gainditu duten pertsonai bakarretakoak izango ziren. Aldiz, haien artean Afrikan medikuntzan aritutako Jacques Pépin quebecarrak “*The origins of the SIDA*” liburuan aitortu du ziurrenik berak ere lagundu ziola izurri beldurgarriari indar hartzen. Infernurako bidea asmo onez harriztatua omen dago.

La vie des idées aldizkari elektronikoan Guillaume Lachenal antropologoak aurkeztu ditu Pépinen ideiak HIESaren jatorria azaltzen saiatu diren beste hipotesi famatuenen artean. 1999an *The River* (Ibaia) argitaratu zuen Ed Hooper kazetari ingelesak proposatuz izurria eragin zutela mediku belgikarrek orduan berena zuten Kongon poliomielitisarentzako txerto berriak probatuz, 1950eko hamarkadan.

Geroztik egindako ikerketek baztertu duten arren polioaren hipotesia, Hooperren liburuak bazuen meritu bat: luze eta zabal erakutsi zuela Afrikako kolonietako jendeak laborategiko akuritzat erabili zituela Mendebaldeko medikuntzak.

Lachenalek dio hari horri tiraka Jacques Pépinek idatzi duela orain

arteko liburutik baliosena. “Egileak, Quebecoko mediku bat eritasun kutsakorretan berezitua, liburuan eskaini du GIBaren (VIH) eboluzioaren historiaren sintesia eta ikerketa historiko originala, ondorioztatzeko HIESa Afrikako erdialdean abiarazterakoan erabakigarriak izan zirela medikuen inekzio esterilizatu gabeak; hau da, HIESaren jatorria hein batean iatrogenesiak —medikuek eragindako kalteak—eragin duela”.

Gaur frogatutzat ematen da Giza Immunoeskasiaren Birusa (GIB) XX. mende hasieran azaldu zela Afrikako erdialdean. 1959an borborka ari da birusa Kinshasa hiri nahasiaren errailetan. Baina nola egin du jauzi tximutik gizakira? Nola bilakatu epidemia hain denbora laburrean? Nola azaldu Kamerungo hego-ekialdeko oihaletik Kinshasara eta mundu osoraino hedatuz egin duen bidea?

Tximu handietatik jendeengana pasatu zen hauek haiek ehizatuta jatean, hori demostratuta dago. “Oihaneko haragia” jatea, Mendebalde aberatseko jendeon ikuskerari ondo dagokio esplikazio hori; iradokitzen du afrikarren halako bekatu bat naturaren legeen kontra, gero zabalduko dena hiritartzeak eta deskolonizazioaren desmasiek bultzata, tartean antzinako sexu jokaeren aldatzeak.

Irudi txikian Jacques Pépinen *The Origins of AIDS* liburuaren azala; Cambridgeko unibertsitateak argitaratu dio. Irudi handia Madame Lugane izeneko batek egina da eta *Le médicament qui devait sauver l'Afrique* liburuan sartu du artikulua honen iturri nagusia den Guillaume Lachenalek. Belgikaren edo Frantziaren mendeko lurralde batean herritarrak txandaren zain daude loaren eritasunaren kontrako inekzioa hartzeko. Lachenalek liburu gogorrean kontatu du zein metodo bortitzez behartzen zituzten herritar guztiak txertoa hartzera. Jacques Pépinek, berriz, *The Origins of AIDS*-en txertaketa masibo haiek lotzen ditu HIESaren zabaltze harrigarriarekin. Pépin doktore quebecarrak urte luzez egin du lan Afrikan eta liburuaren pasarte batean aitortzen du menturaz berak ere kutsatua izango diola norbaiti eritasuna, ohartuta zein baldintzatan burutzen zen medikuntza.


Baina, galdetzen du Pépinek, basoan tximuen haragia betidanik jan baldin badute eta haragi horren kontsumoa izugarri handitu bada 1990eko hamarkadatik oihan tropikalen krisia dela eta... orduan zergatik azaldu da GIB XX. mendean eta ez lehenago, eta ez geroago?

Milioika txertatze kolonietan

Ikertzaile askok galderaren arrazpostua topatu dute gaur Kinshasa den Leopoldvillen. Inguruan parearik gabeko hiritzarra XX. mende hasieran, sexu harremanez transmititzen den birus batentzako proposa zen: etorkinez eraikia, sexu ratio beldurgarria (gizon asko, emakume gutxi), prostituzio handia eta zentralizatua...

Hipotesiak badauka funtsa, baina alde ahulak ere bai. Zergatik zabaldu da HIESa askoz gehiago eta azkarrago beste eritasun kutsakorrek baino? Adituek egin dituzte simulazioak eta datu guztiak kontutan harturik, tartean harreman heterosexualek berez —beste faktoreen laguntzarik gabe, hala nola genitaleko zauriak edo beste infekzioak eta abar— daukaten arrisku maila, nekez ulertzen da izurriaren hedatze beldurgarria.

Jacques Pépinek bestelako hipotesi bat proposatu du: medikuen inekzioen garrantzia. Hau bera ari



dira defenditzen 2000. urtetik beste aditu asko, tartean, Preston Marx primatologoa, Ernest Drucker epidemiologoa, David Gisselquist aditua eta Frantzian Jacques Leibo-witch HIESaren militante ezaguna.

XX. mendearen lehen erdian Afrikan aldaketa handiak ikusi dira demografian eta sexualitatean, baina baita medikuntzan ere. 1910etik aurrera Kamerundik hasi eta Aintzira Handietaraino potentzia kolonialek sekulako programak antolatu zituzten gaixotasun tropikalen kontra, bereziki loaren gaixotasunaren (*tse-tse* euliek kutsatzen duten famatu haren) eta *Pian* gaixotasunaren kontra.

Prebentzio kanpaina handiak antolatu zituzten estatu kolonialek

—funtsean eskualde horretan Belgikak eta Frantziak—, injekzioetan oinarrituak. “*Médecine de masse*” deitzen dio Guillaume Lachenalek. Agintari kolonialen lehentasunetako bat zen belgikarren Kongon, Kamerunen eta Frantziaren Ekuatore Afrikan. Bigarren Mundu Gerraren ostean jo zuten gailurra herriarren txertatze kanpainok. “Milioika eta milioika afrikar erabili zituzten katean jarrita odol ateratze eta injekzio ugaritan, batzuekin erabilitako xiringak eta orratzak ondo-rengoeekin erabiliz”.

GIB izurriaren hasiera honela irudikatzen du Pépinek: ekipo mediku bat iristen da Kamerungo hegoaldeko herri isolatu batera, non aditu guztiek aipatzen duten ehiztari

famatuak —txinpantze gaixotu batek immunoeskasiaren birusa pasatu diona— bereaz kutsatu dituen herriko beste batzuk erizainek eta medikuek erabilitako xiringa eta orratzen bidez. Gogoratu behar da GIBa kutsatzeko esterilizatu gabeko injekzioak askoz *hobeak* direla sexu harremanak baino.

Sortu delarik kutsatutako jende multzo aski handia, horietako bat edo batzuk joango ziren Leopoldvillera. Hiri handiak GIBak gehiago ugaritzeko pagotxa aurkitu zuen. Asko aipatu baita prostituzioa, Pépinek nabarmendu du hain zuen prostitutak bereziki tratatzen zituztela txertaketa kanpainetan medikuek, bide batez beren buruak ere arriskuan jarritz, desinfektatu gabeko materialen erabilera okerragatik.

Teoria honentzako frogatzat erakusten du Pépinek berak oso ondo ezagutzen duen C Hepatitisaren Birusarekin (CHB) gertatua. Hau oso gutxi kutsatzen da sexu bidez eta, droga zainetatik hartzen dutenak kenduta, iatrogenesia izan da kutsatze bide nagusia: medikuntzak berak eragindako kaltea. Egipton beste eritasun baten kontrako txertaketa kanpainetan kutsatu ziren milaka jende CHBz.

Laburbilduz, badirudi hein batean kolonien garaiko masa medikuntzak bere ahaleginean nahi gabe eragin duela GIB izurrite bilakatzeara. Guillaume Lachenalek bere artikuluan dioenez, “akrobaziaren jardun beharra dago HIESaren irakurketa soilik sexuala egiten jarraitzeko, medikuntza kolonialaren eraginak kontutan hartu gabe”. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Aukera bat izan dezagun

CARMEN GISASOLA izan da espetxe zigorrak betetzeari buruzko Europar Batasuneko arauak Espainian indarrean jarztean libre geratu den lehen euskal preso. Frantzian bete zituen 10 urteak kontuan hartuta, kontaketa egin eta Auzitegi Nazionalak libre utzi zuen joan den azaroaren 24an.

Hamar egun geroago atera ziren Santi Arrospide eta Alberto Plazaola, hurrenez hurren, Alacant II eta Texeiroko espetxeetatik. Sona ez da Parot doktrinaren parekoa izan Espainian, baina brunete mediatikoak ez du aukerarik galdu eta Espainiako Gobernuak jadanik atera du lege bat—azaroaren 12an— Europar Batasuneko zigorreki buruzko araua ez betetzeko.

Ohi bezala, korapiloa handia da halakoetan, bai justizia administrazioaren eta exekutiboaren artean, eta baita justiziaren baitan ere. Auzitegi Nazionalan ez dira ados: Zigor Aretoko Lehen Sekzioak erabaki du bi preso hauek libre uztea, zigor urteen kontaketa berrian Frantzian betetako zigorra kontuan hartu ondoren. Bigarren Sekzioko epaimahai batek, aldiz, kontrakoa erabaki zuen Iñaki Bilbao presoaren zigor urteen birkontaketa egitean.

Lehen sekzioaren ustez, Europar Batasunak 2008an hartutako araua betetzen zen bere epaiarekin. Haren arabera, molde bereko delituetako zigorrak batu egin behar dira EBn, hauek estatu desberdinetan epaituak izan arren. Hau da, Frantzian ETAKoa izateagatik—han gaizkile taldeko kide—10 urteko zigorra bete duen presoari, gero Espainiako bere zigoretik ezabatu beharko litzaiokeela denbora hori.



Hau da, EBn gero eta legedi gehiago batzen dira eta presoek esparrua arautzen duena ere batzen ari da. Hori bai, 2008an onartu zen neurria eta haren lehen ondorioa sei urte geroago iritsi zaie hiru presori. Ia beste hirurogeiri ere aurki eragingo lieke neurriak, Auzitegi Nazionalak bere osotasunean onartu izan balu, PPK berak onartu izan balu. Baina ez. Europatik bete behar dira Banku Zentralaren eta Merkelen aginduak, baina ez euskal presoek zigorrrak murrizten dizkieten arauak.

Bigarren sekzioaren epaiak zioen itxaron behar zela nola gartzetzen zen Espainiako legedia, horrela Europako araua indarrean nola jarri ikusi ahal izango zelako. Espainiako Lege berri honek—7/2014—dio, arau hau aplikatzeko ez direla kontuan hartuko 2010eko abuztuaren 15aren aurretik beste estatuetakoa auzitegiek jarritako zigorrrak. Horrela, Europako neurriak ez lieke eragingo dozenaka euskal presori, haiei Frantzian jarritako zigorrrak 2010ekoak baino lehenagokoak direlako.

Auzitegi Nazionalako fiskaltzak ere helegitea jarri du Lehen Sekzioak hartutako erabakiaz, eta 2002an Auzitegi Gorenak emandako epai batean oinarritu da,

orduan Gorenak atzera bota baitzuen beste estatu batzuetako zigorrrak Espainiako zigorra murrizteko erabiltzea.

Baina zigorren batzea agintzen duen EBren araua 2008an sartu zen indarrean eta duela gutxi, Espainiako Auzitegi Gorenak oso bestela ebatzi du gaiaz, Joseba Urrusolo Sistiaga presoak jarritako eskaerari erantzunez. Langraitz bideko preso lesakarra izan zen Europako araua aintzat hartzea eskatu duen lehen preso. Kontua da Gorenak erantzun ziola ez zegoela eragozpenik Frantzian betetako zigorra Espainian ere kontuan hartzeko.

Orain, fiskaltzaren helegiteaz eta Auzitegi Nazionalako bi sekzioen epai kontrajarriei ebatzi beharko du Gorenak. Orain, gainera, badu legezko eragozpen bat, Espainiak onartu berri duen legea. Baina konstituzionala izango da lege hau Europar Batasunak onartutako arauen espirituaren kontrakoa denean goitik behera? Zer esango du Estrasburgoko Auzitegiak presoek zigorrez *ad hoc* egingako legeaz, honek presoek giza eskubideak urratzen dituenen?

Norbaitek behar badu, PPK darabilen mendeku politikaren beste froga bat gehiago, eta pertsona zehatzen eskubideak zantzetzeaz gain, bake prozesua eta elkarbizitzarako oztopo bat gehiago ere bai. Ez da nahikoa euskal gizarteak modu bateratu batean protesta egin dezan? Aski da esan dezan? Instituzio, alderdi, elkarte, herritar... guztiak batera euskal gizarteak behingoz merezi duen garai berriaren aldeko oihuan? Triste da, baina gerrak bakeak baino gehiago batzen zuen gizarteak ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat

Lar Zaldiak



Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA

www.larzaldiak.com

1

Ekainberri

Ekain berri



3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2

Eureka! Zientzia museoa



2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

3

Donostiako Aquariuma



4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

4

Erlea gure sendagile



liburua

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2439. Argia)

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

- Gurutze Aiartzaguena Aranzibia (Zaldibar)

EKAINBERRI

- Asier Alvarez De Eulate Mujika (Ordizia)
- Maite Arregi Tejeria (Villabona-Amasa)
- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)

OKATXU komikia

- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)

KAOTIKO - E.H. CALLING CDa

- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Eneko Etxebarria Uriarte (Agurain)
- Esteban Etxebarria Urreaga (Hernani)
- Jesus Miguel Zabalo Bilbao (Galdakao)
- Fray Juan de Zumarraga Institutoa (Durango)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Jose Garaizabal Aizpurua (Elorrio)
- Irune Iturbe Arriola (Aretxabaleta)
- Pake Garzia Konde (Orio)
- Itziar Garcia Blazquez (Oñati)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia





Lan
berriaren
aurkezpen
emanaldia

OIARDO KIROLDEGIA (USURBIL) ABENDUAK 20, LARUNBATA

bi saio: 16:00 eta 18:30

Sarrerak: aurretik 7 euro, egun berean 8 euro (12 hilabete arteko haurrak doan)

Harremanetarako:

☎ 943 37 15 45
sustapena@argia.com

Antolatzailea

ARGIAREN Adiskideak
Usurbilgo Taldea

 **argia**

Laguntzaileak

Kilometroak
2015


Udarregi
IKASTOLA


Ikastolen Ekartea